

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

2523/2007 EBAZPENA, azaroaren 9koa, Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak emana, Bigarren Hezkuntzako irakasleen, Lanbide Heziketako irakasle tekniko eta Arte eta Hizkuntza ikasketetako irakasleen Kidegoetako funtzionarioak banatu eta lanpostuak betetzeko deialdia onesten duena.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak seigarren xedapen gehigarriko laugarren puntuan ezartzen duenaren arabera, estatu osorako lehiaketak egiten ez diren ikasturteetan, hezkuntza arloko administrazioek lanpostuak betetzeko prozedurak antolatzen ahalgo dituzte, berek kudeatzen duten esparruan eta bertako lanpostuak betetzeko. Hori dena, noiznahi ere beren langileak banatu edo kartzeko prozedurak egiteko duten gaitasuna deusetan galarazi gabe.

Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren hirugarren xedapen gehigarriak ezartzen du ezen, irakasle kidegoetako funtzionarioen lekualdatze lehiaketan bidezko mugikortasunean eragina duten aurreikuspenak garatzen ez diren bitartean, mugikortasuna indarra duen arudiari lotuko zaiola lege honek indarra hartzean, bai eta hamaikagarren xedapen iragankorrari ere, zeinak baitio, legearen arabera geroko xedapenen bidez arautuko diren gaitetan, xedapen horiek eman bitarte, legeak indarra hartzean aplikatzen ziren arauak aplikatuko direla, hartan xedatutakoaren kontrakoak ez badira behintzat.

Urriaren 2ko 2112/1998 Errege Dekretuak finkatu zuenaren arabera, estatu osorako lekualdatze lehiaketak bi urtean behin egiten dira. Kontuan harturik lehiaketa horietarako deialdiak 2006/2007 ikasturtean egin zirela, ikasturte honetan beste neurri batzuk har daitezke lanpostuak betetzeko, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Legeari jarraituz.

Azaroaren 29ko 1701/1991 Errege Dekretuaren bidez, Bigarren Hezkuntzako irakasleen Kidegoko espezialitateak ezarri ziren, Kidego horretako irakasleak atxiki zitzaizkien eta irakasle horiek irakatsi behar dituzten arlo eta irakasgaiak zehaztu ziren.

Gero, urriaren 6ko 1635/1995 Errege Dekretuaren bidez, Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoaren Kidegoko espezialitateak ezarri ziren, berariazko lanbide heziketaren antolamenduaren ondorioz eta, halaber, ukituriko irakasleak espezialitate haiei atxikitze modua ere arautu zen, xedapen horretan ezarriko egokitasunaren arabera. Bestalde, apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretuak Lanbide Heziketaren antolamenduko zenbait arlo garatzen ditu hezkuntza sistemaren esparruan.

Urriaren 2ko 2112/1998 Errege Dekretuko hamabosgarren xedapen gehigarriak honako hau ezarri du: "Hezkuntza administrazioek zilegi izanen dute irakasleak berriz banatzeko irizpide eta prozedurak ezartzea derrigorrezko bigarren hezkuntzako bigarren zikloaren, batxilergoaren eta lanbide heziketaren ezarpenaren ondorioz, administrazio bakoitzak zehazten duen moduan".

Ekainaren 2ko 989/2000 Errege Dekretuaren bidez ezarri dira Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen Kidegoko espezialitateak, Kidego horretako irakasleak espezialitate horiei atxiki zaizkie eta irakasle horiek zein irakasgai eman behar duten zehaztu da.

Aipatu errege dekretuko bigarren xedapen gehigarrian xedatzen da autonomia erkidegoetako kasuko organoek ikasketa berriak ezartzeagatik irakasleak berriz banatzeko irizpideak eta prozedurak ezar ditza-ketela, hezkuntza administrazio bakoitzak zehazten duen eran eta errege dekretu horren aurreikuspenen arabera.

Abenduaren 5eko 1284/2002 Errege Dekretuaren bidez ezarri dira Arte Plastikoen eta Diseinuko irakasleen Kidegoko eta Arte Plastikoen eta Diseinuko Tailer maisuen Kidegoko espezialitateak, Kidego horietako irakasleak espezialitate horiei atxiki zaizkie eta irakasle horiek zein modulu, irakasgai eta arlo eman behar duten zehaztu da.

Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak azaroaren 9an emandako 2522/2007 Ebazpenaren bidez onetsi dira Hezkuntza Departamentuaren menpean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Arte eta Hizkuntza ikasketak ematen dituzten ikastetxeen plantillak eta, horrez gain, 2007/2008 ikasturteko deialdian irakasleak banatu eta lanpostuak betetzeko prozeduran izanen diren lanpostu hutsen zerrenda.

Hezkuntza Departamentuko Ikuskapenaren eta Zerbitzuen zuzendari nagusiak irailaren 19an emandako 155/2007 Ebazpenaren bidez esleitu zaizkidan eskurantzak erabiliz, bidezkoa da Bigarren Hezkuntzako irakasleen, Lanbide Heziketako irakasle tekniko eta Arte eta Hizkuntza ikasketetako irakasleen Kidegoetako irakasleak banatu eta lanpostuak betetzeko deialdia onestea Nafarroako Foru Komunitatean, ondoko arau hauen arabera:

ARAUAK

Lehenen.–Merezimendu lehiaketarako dei egin da, deialdi honetan ezartzen diren zehaztapenei jarraituz, Kidego hauetako irakasle funtzionarioak banatu eta irakasle lanpostuak betetzeko:

- Bigarren Hezkuntzako irakasleak.
- Lanbide Heziketako irakasle teknikoak.
- Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleak.
- Musikako eta Arte Eszenikoetako katedradunak.
- Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleak.
- Arte Plastikoen eta Diseinuko irakasleak.
- Arte Plastikoen eta Diseinuko tailer maisuak.

Bigarrena.–Parte-hartzaileak.

1. Borondatez parte har dezaketenak.

1.1. Deialdi honetan parte hartzen ahalgo dute, hala nahi izanez gero, Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoaren kidegoetako karrerako funtzionarioek, bai eta Arte eta Hizkuntza ikasketak ematen dituzten irakasleek ere, organikoki eta funtzionalki Hezkuntza Departamentuaren menpe eta honako egoeraren batean baldin badaude:

A.–Jardunean dauden funtzionarioak, baldin eta behin betiko destinoa Hezkuntza Departamentuaren menpeko ikastetxeren batean badaude, kontuan hartu gabe behin betiko azken destinoan zenbat denbora egin duten, Unibertsitatez kanpoko irakaskuntza hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legearen 3. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

B.–Egun Hezkuntza Departamentuaren menpe dagoen ikastetxeren batean deklaraturako eginkizun berezietako egoeran dauden funtzionarioak, kontuan hartu gabe behin betiko azken destinoan zenbat denbora egin duten, Unibertsitatez kanpoko irakaskuntza hobetzeko neurri buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legearen 3. artikuluan xedaturakoari jarraikiz.

C.–Egun Hezkuntza Departamentuaren menpe dagoen ikastetxeren batean deklaraturako borondatezko eszedentzian dauden funtzionarioak, baldin eta ikasturte honen amaieran jarduneko zerbitzura itzultzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen badituzte.

Borondatezko eszedentziaren egoeratik parte hartzen duten funtzionarioek 2008ko irailaren 1ean joan beharko dute deialdi honen ondorioz egokitu zaien destinora, hala gertatuz gero.

D.–Egun Hezkuntza Departamentuaren menpe dagoen ikastetxeren batean deklaraturako eginkizun-gabetze egoeran dauden funtzionarioak, betiere ikasturte honen amaieran eginkizun-gabetzeko zehapenaren irauinaldia bukatu bazaia.

1.1. atal honetan aurrez ikusitako ondorioetarako, 2008ko abuztuaren 31 hartuko da ikasturte amaierako data gisa.

1.2. Destinoa eskuratzeko lehenetsuneko eskubidea erabili nahi dutenek deialdi honetako hamargarren arauan ezarritakoa bete beharko dute.

2.–Nahitaez parte hartu behar dutenak.

2.1. Deialdi honetan parte hartu beharko dute, nahitaez, Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoek kidegoetako karrerako funtzionarioek, bai eta Arte eta Hizkuntza ikasketak ematen dituzten irakasleek ere, organikoki eta funtzionalki Hezkuntza Departamentuaren menpe eta honako egoeraren batean baldin badaude:

A.–Eszedentzian edo eginkizun gabetuta egon ondoren, deialdi hau argitaratu baino lehen jarduneko zerbitzura itzuli eta horren ondorioz Hezkuntza Departamentuaren kudeaketa esparruan behin-behinekoz ari diren funtzionarioak.

Deialdi honetan parte hartzen ez badute edo behar beste lanpostu huts eskatzen ez badute, libreki emanen zaie behin betiko destinoa, titular diren espezialitateen arabera Foru Komunitateko ikastetxeetan bete ditzaketen lanpostuetan, arau honetako 2.2. atalean zehazturiko lanpostuetan izan ezik. Nahitaezko esleipena I., II., III., IV. eta V. eranskinetan ageri den ikastetxeen ordenaren arabera eginen da.

B.–Nahitaezko eszedentzian edo eginkizun-gabetuta eta destinoa galduta egon ondoren, zehapena betetakoan behin-behinekoz itzultzea lortu ez duten funtzionarioak, egun Hezkuntza Departamentuaren menpe dagoen ikastetxe batean egoera horretan deklaratu direnak.

Aitzineko lerroaldean sartutako funtzionarioak deialdi honetara aurkezten ez badira, edo aurkezturik ere, Hezkuntza Departamentuaren menpeko aski ikastetxetarako eskaria egiten ez badute, behin betiko destinorik eskuratzen ez dutenean, borondatezko eszedentziaren egoeran geratuko dira, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onetsi zuen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 26.1 artikuluko c) atalean aurrez ikusitakoari jarraikiz. Foru dekretu hori maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legeak aldatu zuen.

C.–Kanpoko lanpostuei atxikita egon ondoren Hezkuntza Departamentuaren kudeaketa eremuan berriz hasi behar badute 2008/2009 ikasturtean edo, aurreko ikasturteren batean berriz hasirik, behin betiko destinoa lortu ez badute.

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioko Administrazioa Kanpoan arautzen duen urriaren 31ko 1138/2002 Errege Dekretuaren 14.4. artikuluan aipaturikoari jarraikiz (262. "Estatuko Aldizkari Ofiziala", azaroaren 1ekoa), herri baterako lehenetsuneko eskubidea erabili nahi duten irakasleek, deialdi honen hamargarren arauari jarraikiz, behin betiko azken destinoa izan zuten herrian titular diren espezialitateetarako eskaintzen diren lanpostu guztiak eskatu beharko dituzte, arau honetako 2.2. atalean aipaturakoak izan ezik, horiek borondatez eskatzen ahalko baitira. Parte hartu eta destinorik eskuratzen ez badute, herri horri behin-behinekoz atxikirik geldituko dira.

D.–Epaia bat bete edo errekurso bat ebaztearen ondorioz, edo behin betikoz zuten lanpostua berariaz kendu zaielako, behin betiko destinoa galdu duten funtzionarioak.

Parte hartzera beharturik izan eta lehiaketan parte hartzen ez dutenei, Administrazioak ofizioz emanen die destinoa, lanpostu horietan aritzeko eskatzen diren beharrik ez diren baldintzetan. Lehiaketan parte hartu eta destinorik lortzen ez dutenei behin-behineko destinoa emanen zaie.

Deialdi honen ondorioetarako, kendutako lanpostutzat hartuko dira ebazpen formal eta banan-banan egindakoaren bidez berariaz kendu diren haiek. Irakasle horiek urriaren 2ko 2112/1998 Errege Dekretuaren hamahirugarren xedapen gehigarriko 2. puntuak aipaturako moduan

ikastetxea lehenetsuneko aukeratzeko eskubidea baliatzen ahalko dute, deialdi honetako hamargarren arauan ezarritakoari jarraikiz.

E.–Honako hauen arabera destinoa eskualdean duten Psikologia eta Pedagogia espezialitateko Bigarren Hezkuntzako irakasleak: Eskola orientazioaren antolamendu berriaren ondoriozko lanpostuei atxikitzeko deialdiaren behin betiko ebazpena (Eskola orientazioaren antolamendu berriaren deialdia, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak uztailaren 2ko 245/1999 Foru Aginduen bidez onetsi eta 90: Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN, uztailaren 21ean, argitaratua) eta abuztuaren 24ko 296/1999 Foru Aginduen 3. atala.

Irakasle horiek, parte hartzeko eskubidean, beren destinoko eskualdean dauden lanpostu guztiak eskatu beharko dituzte, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak maiatzaren 27ko 166/1999 Foru Aginduen bidez onetsitako eskualdeen arabera (73. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA, ekainaren 11koa). Bestetik, nahi izanez gero, Psikologia eta Pedagogiako lanpostuei dagozkien beste eskaera batzuk ere egiten ahalko dituzte. Beren eskualdeko lanpostu guztiak jartzen ez badituzte, Administrazioak ofizioz jarriko ditu, foru agindu honen II. eranskinean agertzen den hurrenkerari jarraikiz.

Irakasle horiek deialdi honetako hamargarren arauko 4. atalean aipatzen den eskubidea (eskualdea lehenetsuneko aukeratzeko) erabili dezakete.

F.–Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren menpeko ikastetxeetan 2007/2008 ikasturtean behin-behineko destinoarekin ari diren irakasleak.

Funtzionario horiek behartuta daude Kidegoan sartzeko bide izaniko espezialitate eta hizkuntzako lanpostuak edo titular diren espezialitateetako lanpostuak eskatzera, kontuan izanik, hala denean, urriaren 6ko 1635/1995 Errege Dekretua eta Berariazko Lanbide Heziketako espezialitateak onetsi zituen apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretua. Funtzionarioak espezialitate bat baino gehiago izanez gero, bere Kidegoan sartzeko bide izaniko espezialitate eta hizkuntzan lortzen ahalko du behin betiko destinoa edo, bestela, Kidegoan sartu ondoren lortu dituen espezialitateetako edozeinetan. Titular diren espezialitateen arabera, eskura ditzaketen beste lanpostu batzuk ere eskatzen ahalko dituzte, baldintza berberetan.

Atal honetan sartzen diren irakasleek lehiaketan parte hartzen ez badute edo, parte hartuta ere, behar beste lanpostu huts eskatzen ez badute, libreki esleitu zaie behin betiko destinoa Kidegoan sartzeko bide izaniko espezialitate eta hizkuntzan edo, bestela, Kidegoan sartu ondoren lortu dituzten espezialitateetan, Foru Komunitateko ikastetxeetan betiere. Nahitaezko esleipena I., II., III., IV. eta V. eranskinetan azaltzen den ikastetxeen hurrenkerari jarraikiz eginen da, arau honetako 2.2. atalean ageri diren lanpostuak izan ezik.

Behin betiko destinoa lortzen ez badute, behin-behineko destinoko egoeran geratuko dira.

2.2. Ondoko lanpostuak ez dira inolaz ere nahitaez esleitu:

–Esparru sozio-linguistikoko lanpostuak.

–Esparru zientifiko-teknikoko lanpostuak.

–Esparru praktikoko lanpostuak.

–Kultura Klasikoko lanpostuak (latina eta grekoa).

–Natur Zientzietako lanpostuak.

Hirugarrena.–Deialdiko lanpostuak eta haien argitalpena.

Deialdi honen bidez eskaintzen diren lanpostuak hauek dira: Hezkuntza Departamentuko ikastetxeen plantillak onesten dituen ebazpenen ageri diren lanpostu hutsak gainera, Kidego bakoitzean lanpostuak betetzeko prozeduren ebazpenetik ateratzen direnak. Horiez gain, deialdi hau ebatzi bitartean edo, kasu bada, 2007/2008 ikasturtea bukatu arte erretrorogatik, heriotzengatik edo lanpostua gorde gabeko eszedentziengatik sor daitezkeen lanpostu hutsak ere sartuko dira. Lanpostu horiek guztiak beteko dira hezkuntzako plangintza orokorrean aurrez ikusita baldin badaude.

Laugarrena.–Bigarren Hezkuntzako irakasleak.

Kidego horretako irakasleentzat ondoko lanpostuak eskaintzen dira:

1) Kidego honetako irakasleek, zein espezialitateetako titular diren, hari dagozkion lanpostuak eskatzen ahalko dituzte, deialdi honen I. eranskinean ageri diren ikastetxetarako eta VII. eranskinean adierazten diren espezialitateetarako (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Berariazko Lanbide Heziketako ikasketak).

1992ko Estatuko Aurrekontu Orokorre buruzko abenduaren 30eko 31/1991 Legearen hogeita bederatzigarren xedapen gehigarriaren indarrez kidego honetan sartu diren langileek, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren irakasle funtzionario gisa integratzeko foru dekretuetan egindako atxikipenei jarraikiz titular diren espezialitateetan parte hartzen ahalko dute, VII. eranskinean ezarritakoaren arabera. Kasu horretan, deialdi honen indarrez beste ikastetxe batean behin betiko destino berri bat lortzean, parte-hartzaileak galdu egiten ditu atxikipen esparruan sartutako gainerako espezialitateen inguruan izaten ahal dituen eskubideak.

2) Psikologia eta Pedagogia espezialitateari dagozkion lanpostuak (espezialitate kodea 018), deialdi honetako II. eranskinean ageri diren ikastetxeetan espezialitate horren titular diren irakasleentzat.

3) Esparru zientifiko-teknikoko lanpostuak, I. eranskinean ageri diren ikastetxeetan.

Bigarren Hezkuntzako irakasleak espezialitate horretako lanpostuetan atxikitzen ahalko dira, espezialitate hauetako baten titularrak badira:

- Matematika.
- Fisika eta Kimika.
- Biologia eta Geologia.

4) Esparru sozio-linguistikoko lanpostuak, I. eranskinean ageri diren ikastetxeetan.

Bigarren Hezkuntzako irakasleak espezialitate horretako lanpostuetan atxikitzen ahalko dira, espezialitate hauetako baten titularrak badira:

- Geografia eta Historia
- Gaztelania eta Literatura.
- Grekoa
- Latina.
- Filosofia.
- Atzerriko hizkuntza (ingelesa-frantsesa).
- Euskal Hizkuntza eta Literatura.

5) Kultura Klasikoko (latina-grekoa) lanpostuak, I. eranskinean ageri diren ikastetxeetan. Urriaren 6ko 1635/1995 Errege Dekretuko hamargarren xedapen gehigarriaren babesean, lanpostu horiek latina edo grekoa espezialitateetako titular diren Bigarren Hezkuntzako irakasleak eskatzen ahalko dituzte, batzuek zein besteek, bereizketarik egin gabe. Lanpostua lortzen duen irakasleak irakatsi beharko ditu bai grekoa espezialitateari dagozkion gaiak bai latina espezialitateari doazkionak.

6) Natur Zientzietako lanpostuak, I. eranskinean ageri diren Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutueterako. Uztailaren 6ko 225/1998 Errege Dekretuko seigarren xedapen gehigarriaren babesean, lanpostu hauek Fisika eta Kimika edo Biologia eta Geologia espezialitateetako titular diren Bigarren Hezkuntzako irakasleak eskatzen ahalko dituzte, batzuek zein besteek, bereizketarik egin gabe. Lanpostua lortzen duen irakasleak Natur Zientzien arloa irakatsi beharko du.

Bosgarrena.-Lanbide Heziketako irakasle teknikoak eta horiekin parekatutakoak.

1. Kidego horretako irakasleek eta horiekin parekatutakoak, zein espezialitateetako titular diren, hari dagozkion lanpostuak eskatzen ahalko dituzte, deialdi honen I. eranskinean ageri diren ikastetxeetan eta VIII. eranskinean adierazten diren espezialitateetarako.

2. Esparru praktikoko lanpostuak, I. eranskinean ageri diren ikastetxeetarako. Lanbide Heziketako irakasle teknikoak lanpostu hauetan atxikitzen ahalko dira, espezialitate hauetakoren bateko titularrak badira:

Makinen mekanizazioa eta mantentze-lanak, Soldadura, Instalazio elektroteknikoak, Bero eta fluido ekipoen instalazioa eta mantentze-lanak, Ekipo elektronikoak, Ibilgailuen mantentze-lanak, Eraikuntza proiektuen bulegoa, Fabrikazio mekanikoko proiektuen bulegoa, Labortegia, Prozesuko lanak, Nekazaritzako ekoizpeneko lanak eta eki-poak, Irudiko eta soinuko teknika eta prozedurak, Arotz-lanak eta al-tzariak egin eta instalatzea, Patrioiak eta jantzigintza, Ehungintza eta tratamendu fisiko-kimikoak, Arte grafikoetako produkzioa edo Meatzaritzako praktikak.

Seigarrena.-Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleak.

Kidego honetako irakasleek, zein espezialitateetako titular diren, hari dagozkion lanpostuak eskatzen ahalko dituzte, deialdi honen III. eranskinean ageri diren ikastetxeetan eta IX. eranskinean adierazten diren espezialitateetarako.

Zazpigarrena.-Musikako eta Arte Eszenikoetako katedradunak eta irakasleak, eta horiekin parekatutakoak.

1) Musikako eta Arte Eszenikoetako katedradunek eta horiekin parekatutakoak, zein espezialitateetako titular diren, hari dagozkion lanpostuak eskatzen ahalko dituzte, deialdi honen IV. eranskinean ageri diren ikastetxeetan eta X. eranskinean adierazten diren espezialitateetarako.

2) Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleek eta horiekin parekatutakoak, zein espezialitateetako titular diren, hari dagozkion lanpostuak eskatzen ahalko dituzte, deialdi honen IV. eranskinean ageri diren ikastetxeetan eta XI. eranskinean adierazten diren espezialitateetarako.

Zortzigarrena.-Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakasleak eta tailer maisuak.

1) Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakasleek, zein espezialitateetako titular diren, hari dagozkion lanpostuak eskatzen ahalko dituzte,

deialdi honen V. eranskinean ageri diren ikastetxeetan eta XII. eranskinean adierazten diren espezialitateetarako.

2) Arte Plastikoetako eta Diseinuko tailer maisuek, zein espezialitateetako titular diren, hari dagozkion lanpostuak eskatzen ahalko dituzte, deialdi honen V. eranskinean ageri diren ikastetxeetan eta XIII. eranskinean adierazten diren espezialitateetarako.

Bederatzigarrena.-Euskarazko lanpostuak.

Deialdi honetan parte hartzen dutenek euskarazko lanpostuak eskatzen ahalko dituzte, betiere laugarren arautik zortzigarrenean bitartekoetan kidego bakoitzerako eskatzen diren espezialitate baldintzak betetzen badituzte eta EGA titulua edo horren baliokidea badaukate.

Hamargarrena.-Lehentasunezko eskubideak.

Lehentasunezko eskubidea erabili nahi duten irakasleek beren eskabide orrietan agertu beharko dute, eta eskaera zertan oinarritzen duten adierazi.

Lanpostuak eskatzerakoan, lehentasunezko eskubide hauek alegatzen ahalko dira soilik:

1. Ikastetxea aukeratzeko lehentasunezko eskubidea.

1.1. Ikastetxea aukeratzeko lehentasunezko eskubidea, euskara edo euskaraz irakasteko lanpostuei atxikitzeko.

Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeen sarea berrantolatzeak arauak eman dituen martxoaren 13ko 69/1995 Foru Dekretuak ezarritakoari jarraituz (martxoaren 13ko 150/1996 Foru Dekretuak aldatu zuen), ikastetxe batean betiko destinoa duten irakasleak, gaztelaniazko lanpostuei atxikiek, baldin eta EGA titulua edo baliokideren bat badute, lehentasuna izanen dute euskara edo euskaraz irakasteko lanpostuei atxikitzeko destinoa duten ikastetxe berean, espezialitate berean edo beste batean, betiere aipatu lanpostuetan aritzeak eskatzen diren gainerako baldintzak betetzen badituzte.

Bat-egitearen edo integrazioaren ondorioz sortutako ikastetxeetako lanpostu hutsari aplikatzen ahalko zaie eskubide hori. Lerroak edo unitateak bereizten badira, bereizitako lerro edo unitateak jasotzen dituen ikastetxeari ere aplikatzen ahalko zaio.

Era berean, titularrak diren espezialitateen arabera eskuratu ditzaketen beste lanpostu batzuetarako eskaerak sartzen ahalko dituzte, lehentasunezko eskubiderik izan gabe haiek lortzeko lehiaketan parte hartu nahi badute.

1.2. Behin betiko destinoa zein ikastetxetan duten, hartan dauden lanpostuetarako lehentasunezko eskubidea, otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuaren V. tituluaren babesean deitutako prozeduren bidez lortutako espezialitateetarako edo urriaren 6ko 1635/1995 Errege Dekretuko 1. eta 4. artikuluetan araututako espezialitate berriei atxikitzeagatik eskuratutako espezialitateetarako. Errege dekretu horren bidez, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan aipatzen diren irakasle kidegoetan sartu eta espezialitate berriak eskuratzeko Erregelamendua onetsi da, eta lege horretako hamazazpigarren xedapen irankorrean sarrerarako aipatzen den araubide iragankorra arautu da.

Urriaren 2ko 2112/1998 Errege Dekretuaren hamahirugarren xedapen gehigarrian, 1. puntuan, xedatutakoarekin bat, espezialitate berria lortzeko prozeduratan beste espezialitate bat lortu duten funtzionarioek lehentasuna izanen dute, behin bakarrik, lanpostu bat hutsik gertatzean, eskuratutako espezialitate berriko lanpostuetan destinoa lortzeko behin betiko destinoa duten ikastetxean, arau honetako 1.3 atalean aipatzen dena galarazi gabe.

Urriaren 2ko 2112/1998 Errege Dekretuaren hamahirugarren eta hamabosgarren xedapen gehigarrietan xedatutakoaren babesean, Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren martxoaren 16ko 74/1998 Foru Aginduari jarraituz egin zen lanpostuen banaketan sartu ziren irakasleek azpialdi honen lehen lehenaldian aipatzen den lehentasunezko eskubidea ere erabil dezakete, berek behin betiko destinoa zein ikastetxetan izan, hartan dauden lanpostu hutsak eskatzeko. Lanpostu horiek titular diren Berariazko Lanbide Heziketako beste espezialitateetako edo espezialitateetakoak izanen dira, urriaren 6ko 1635/1995 Errege Dekretuko 2. eta 4. artikuluetan xedatutakoari jarraituz eta arau honetako 1.3 atalean xedatutakoa galarazi gabe.

1.3. Behin betiko destinoa duten ikastetxean lanpostuak lortzeko lehentasunezko eskubidea.

Urriaren 2ko 2112/1998 Errege Dekretuaren hamahirugarren xedapen gehigarrian, 2. puntuan, xedatutakoarekin bat, lanpostua propio kendu delako beren behin betiko destinoa duten lanpostutik aldatutako irakasleek lehentasunezko eskubidea izanen dute, beste edozein izan-gairen aurretik, ikastetxe horretan bertan beste edozein lanpostu eskuratzeko, haien egoera horrek irauten duen bitartean, baldin eta lanpostu horretan aritzeko beharkizunak betetzen badituzte.

Bigarren arauko 2.D) puntuan xedatutakoari jarraituz, ebazpen formal eta banan-banan baten bidez kendutakoak bakarrik hartuko dira kendutako lanpostutzat.

1.4. Esparru zientifiko-teknikoko lanpostuetarako lehentasunezko eskubidea.

Ikastetxean behin betiko destinoa duten Bigarren Hezkuntzako irakasleek, hots, Matematika, Fisika eta Kimika eta Biologia eta Geologia espezialitatekoek, lehentasuna izanen dute han esparru zientifiko-teknikoko lanpostuetan eskuratzeko destinoa.

1.5. Esparru sozio-linguistikoko lanpostuetarako lehentasunezko eskubidea.

Ikastetxean behin betiko destinoa duten Bigarren Hezkuntzako irakasleek, hots, Geografia eta Historia, Gaztelania eta Literatura, Grekoa, Latina, Filosofia, Atzerriko Hizkuntza (Ingelesa eta Frantsesa) eta Euskal Hizkuntza eta Literatura espezialitatekoek, lehentasuna izanen dute han esparru sozio-linguistikoko lanpostuetan eskuratzeko destinoa.

1.6. Esparru praktikoko lanpostuetarako lehentasunezko eskubidea.

Aipatu 2. puntuko bosgarren arauan ageri diren espezialitateetako Lanbide Heziketako irakasle teknikoek, behin betiko destinoa ikastetxean badute, lehentasuna izanen dute han esparru praktikoko lanpostuetan destinoa eskuratzeko.

1.7. Aurreko azpiataletan adierazitako egoeran bi irakasle edo gehiago baldin badaude, lehiaketa honetan puntuaziorik handiena duenari esleituko zaio lanpostua, lanpostua kendu dieten irakasleek duten lehentasuna galarazi gabe, urriaren 2ko 2112/1998 Errege Dekretuko hamahirugarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren babesean.

2. Ikastetxea aukeratzeko lehentasunezko eskubidea.

2.1. Aurreko ataletan bildutako lehentasunezko eskubideetako bat gauzatu nahi duten irakasleek parte hartzeko eskabidean, lehen-lehenik, lanpostu hutsaren ikastetxearen kodea eta espezialitatearena adierazi beharko dituzte. Era berean, titularrak diren espezialitateen arabera eskuratu ditzaketen beste lanpostu batzuetarako eskaerak sartzan ahalko dituzte gero, lehentasunezko eskubiderik izan gabe haiek lortzeko lehiaketan parte hartu nahi badute.

2.2. Arau honetan aurreikusten denaren arabera, ikastetxea aukeratzeko eskubideetako bi edo gehiago erabil ditzaketen parte-hartzaileek, erabili nahi izanez gero, lehentasunezko hurrenkeraren arabera paratu beharko dituzte parte hartzeko eskabidean. Era berean, titularrak diren espezialitateen arabera eskura ditzaketen lanpostuetarako beste eskaera batzuk sartzan ahalko dituzte gero, lehentasunezko eskubiderik izan gabe haiek lortzeko lehiaketan parte hartu nahi badute.

3. Herria aukeratzeko lehentasunezko eskubideak.

Herria aukeratzeko lehentasunezko eskubideak, ondorengo arauetan aurreikusiak:

-1138/2002 Errege Dekretua, urriaren 31koa, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioko Administrazioa Kanpoan arautzen duena.

-2112/1998 Errege Dekretua, urriaren 2koa, irakasleen kidegoei dagozkien lanpostuak betetzeko estatu mailako lekualdatze lehiaketak arautzen dituena.

Eskubide hori duten funtzionarioek behin betiko azken destinoko herria aukeratzeko erabil dezakete. Lehentasunezko eskubidea eragin-korra izateko, eskatzaileek parte hartzeko eskabidean jarri beharko dituzte, lehenik, eskubide horretaz baliatu nahi duten herrian eskuratzan ahal dituzten espezialitateetako lanpostu guztiak, lehentasunezko hurrenkeran. Eskubidea zein herritariko erabili nahi duten, herri hartako ikastetxeren bat jarri gabe utziz gero, Administrazioak libreki gehituko ditu falta diren ikastetxeak, I., II., III., IV. eta V. eranskinetan kidego bakoitzerako agertzen diren hurrenkeraren arabera.

Era berean, titularrak diren espezialitateen arabera eskuratu ditzaketen beste lanpostu batzuetarako eskaerak sartzan ahalko dituzte gero, lehentasunezko eskubiderik izan gabe haiek lortzeko lehiaketan parte hartu nahi badute.

4. Eskualdea aukeratzeko lehentasunezko eskubidea.

Psikologia eta Pedagogia espezialitateko Bigarren Hezkuntzako irakasleek beren destinoa eskualdean lanpostu bat lortzeko lehentasuna izanen dute, behin bakarrik eta lanpostu hutsik bada, destinoa bigarren arauko 2.E atalak aipatzen duen eskualdean badute.

Irakasle horiek, lehentasun eskubide hori baliatu nahi badute, beren borondatez egin beharko dute. Horretarako, parte hartzeko eskabidean jarri beharko dute, lehenik, lehentasun eskubideaz baliaturik eskualdean hauta ditzaketen lanpostu guztiak (ikastetxeak herri-multzoko homogeneotan agertuko dira). Horren ondoren, lehentasun eskubidetik kanpo hautatu ditzaketen beste lanpostu batzuk.

5. Lehentasunezko eskubideen arteko lehentasunezko hurrenkera.

5.1. Arau honetan onartutako lehentasunezko eskubideen artean honako lehentasunezko hurrenkera dago:

- ikastetxea aukeratzeko lehentasunezko eskubidea.
- herria aukeratzeko lehentasunezko eskubidea.
- eskualdea aukeratzeko lehentasunezko eskubidea.

5.2. Talde berean irakasle bat baino gehiago badago, horien artean lehentasuna izanen du baremoa aplikatu ondoren puntu kopururik handiena duenak.

Lehentasunezko eskubideaz baliaturik herria edo eskualdea lortuta, ikastetxe jakinako destinoa erabakiko da baremoan lortutako puntu kopuruaren arabera, irakasleak banatzeko prozesuko gainerako parte-hartzaileekin lehiatzen.

Hamaikagarrena.-Parte hartzeko modua.

Deialdi honetan parte hartu nahi dutenek eskabide bakarra aurkeztuko dute, espezialitate batera baino gehiagotara lehiatu nahi badute ere, Hezkuntza Departamentuko Argibide eta Agiri Bulegoan (Santo Domingo aldapa z.k.g., Iruña) interesdunen eskura egon den eredu ofiziala erabiliz, ereduari erantsitako jarraibideen arabera beteta. Eskabidea Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuari zuzenduko zaio.

Parte hartzeko eskabideari ondoko agiriak erantsi beharko zaizkio:

A.-Deialdi honetako VI. eranskinean ageri den baremoaren 1.3, 1.4, 2.1, 2.2.4 eta 2.2.5 ataletan aipatzen diren merezimenduak baloratzeko egiaztagiria, Kidego hauek direnean: Bigarren Hezkuntzako irakasleak, Lanbide Heziketako irakasle teknikoak, Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleak eta Arte Plastikotako eta Diseinuko irakasleak eta tailer maisuak; baremoko 1.2, 1.3., 1.4., 2.1, 2.2.4 eta 2.2.5 ataletan aipatzen direnak, Musikako eta Arte Eszenikoetako katedradunak eta irakasleak direnean.

B.-Aurkezten diren agiri guztietan lehiatzailearen izen-deiturak eta kidegoa agertuko dira. Egiaztagiria jatorrizkoen fotokopia badira konpultsatuta egon beharko dute. Konpultsa honako hauek egin dezakete: ikastetxeetako zuzendariak (Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren maiatzaren 18ko 182/2001 Foru Agindua, 79. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA, ekainaren 29koa), Hezkuntza eta Kultura Ministerioak edo beste hezkuntza administrazio batzuetako organo eskudunek.

C.-Giza Baliabideen Zerbitzuak ofizioz gehituko ditu atal hauei dagozkien merezimenduak: Bigarren Hezkuntzako irakasleen, Lanbide Heziketako irakasle teknikoak, Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleen eta Arte Plastikotako eta Diseinuko irakasleen eta tailer maisuen Kidegoentzat ezarritako baremoko 1.1, 1.2, 2.2.1, 2.2.2 eta 2.2.3 atalak; Musikako eta Arte Eszenikoetako katedradun eta irakasleen Kidegoarentzat onetsitako baremoko 1.1., 2.2.1, 2.2.2 eta 2.2.3 atalak. Merezimenduak parte-hartzaile bakoitzaren espedientearen agertzen denaren arabera gehituko ditu.

Halaber, Giza Baliabideen Zerbitzuak ofizioz baloratu die zerbitzu orrian ageri den euskara titulua hizkuntza horretan ematen den espezialitate bati atxikitako irakasleei, ez badute behintzat deialdian parte hartzeko eskabidearekin batera aurkezten merezimenduen baremoko 1.3.3 atalean aipatutako euskara titulua eragiztagiria.

Hamaikagarrena.-Deialdietan parte hartzeko eskabide aurkezten ahal dira Hezkuntza Departamentuko Erregistro Orokorrean (Santo Domingo k., z.k.g., Iruña), Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokorrean, edo Nafarroako Gobernuaren gainerako erregistro bulegoetan (zerrenda 2006ko 65. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, maiatzaren 31n) edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan adierazitako bideetakoaren bat erabiliz.

Eskaera posta bulego batean aurkeztuz gero, gutun-azal irekian eginen da, postako langileek, ziurtatu aurretik, data eta ziguila jar ditzaten.

Eskabideak eredu ofizialari lotuko zaizkio, eta Hezkuntza Departamentuko Argibide eta Agiri Bulegoan eskuratzan ahalko dira.

Hamahirugarrena.-Eskabideak eta agiriak aurkezteko epea 15 egun naturalakoa izanen da, eabazpen hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hasita.

Eskabideak aurkezteko epea amaiturik, ez da inongo eskabiderik edo aldaketarik onartuko. Eskabidea aurkeztu ondoren, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen soilik egin dakoie uko lehiaketan parte hartzeari. Hemezortzigarren arauan adierazten den behin-behineko esleipenaren kontrako erreklamazio epean ere aurkezten ahalko dira ukoak. Uko horrek parte hartzeko eskabidean adierazitako eskaera guztiak ukituko ditu.

Hamaikagarrena.-Eskabideetako sinatzaileek beraietan adieraziko dute deialdi bakoitzeko guztiak betetzen dituztela. Titular diren espezialitateen arabera eskura ditzaketen lanpostuak lehentasunezko hurrenkeran jarri beharko dituzte, deialdi honetako eranskinetan ageri diren ikastetxe eta espezialitateen kodeak jarrita. Hala ere, lehentasunezko eskubideaz baliatzeko, deialdi honetako hamargarren arauan xedatutakoari jarraikiko zaio.

Deialdi honetako parte-hartzaileek eskabidearekin batera banatuko diren oharrei jarraikiz bete beharko dute orria.

Euskarazko lanpostua eskatzen baldin badute, horri dagozkion laukitxoan adierazi beharko dute, parte hartzeko eskabidearekin batera emanen diren jarraibideetan adierazten den bezala.

Hamabosgarrena.

Lehiaketak deialdi honetako VI. eranskinetako merezimendu baremoari jarraikiz ebatziko dira, berezitasun hauek kontuan hartuta:

A) 1992ko Estatu Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 31/1991 Legearen hogeita bederatzigarren xedapen gehigarriaren arabera funtzionario egin ziren irakasleek, Nafarroako Foru Komunitatean lanpostua esleitzeko, kasuan kasuko ataletan bi puntuazio hauetariko bat aplikatzeko aukera izanen dute:

1. Merezimenduen baremoko 1.2.1 atalean, Nafarroako Gobernua lan-kontratu mugagabea duen langile gisa edo, bestela, sartu den kidegoko funtzionario gisa egindako zerbitzu urteak kontatuko dira (lehen zerbitzu urtea ez da kontuan hartuko).

Baremoko 1.2.4. atalean, funtzionario bihurtu eta kidegoan sartu zen egunetik hasita egindako egonaldia kontatuko da, non eta ez den egun horren ondotik beste destino bat lortu, kasu horretan behin betiko azken destinoaz geroztik egindako egonaldia kontatuko baita.

Aukera horretan ez da aintzat hartuko 1.2.5 atalari dagokion puntuazioa.

2. Merezimenduen baremoko 1.2.1 atalean, Nafarroako Gobernua lan-kontratu mugagabea duen langile gisa edo, bestela, sartu den kidegoko funtzionario gisa egindako zerbitzu urteak kontatuko dira (lehen zerbitzu urtea ez da kontuan hartuko).

Merezimendu baremoko 1.2.5 atalean, Nafarroako Gobernua lan-kontratu mugagabea duen langile gisa edo, bestela, sartu den kidegoko funtzionario gisa egindako zerbitzu urteak kontatuko dira (lehen zerbitzu urtea ez da kontuan hartuko).

Aukera horretan ez da aintzat hartuko 1.2.4 atalari dagokion puntuazioa.

Bigarren aukera horretaz ezin dira baliatu funtzionario bihurtu edo kidegoan sartu ziren egunaren ondotik beste destino bat lortu dutenak.

Giza Baliabideen Zerbitzuak ofizioz baloratuko du interesdunarentzat onena den aukera.

B) 2003ko irailaren 1ean Iruñeko Udalaren Lanbide Lantegietatik Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren plantillara pasatu ziren irakasleei, Nafarroako Foru Komunitatean lanpostuak esleitzearen ondorioetarako, ondoko puntuazioak aplikatuko zaizkie baremoko 1.2 atalean:

Merezimenduen baremoko 1.2.1 atalean, Iruñeko Udalean lan-kontratu mugagabea duen langile gisa egindako zerbitzu urteak kontatuko dira (lehen zerbitzu urtea ez da kontuan hartuko).

Baremoko 1.2.4. atalean, Nafarroako Gobernuko funtzionario bihurtu ziren egunetik hasita egindako egonaldia kontatuko da.

Hamaseigarrena.—Balorazio batzordeak.

Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuak balorazio batzordeak izendatuko ditu, espezialitateen edo espezialitate multzoen arabera, lehiatzaileek honakoei buruz alegaturiko merezimenduak baloratuko: Bigarren Hezkuntzako irakasleen, Lanbide Heziketako irakasle teknikoek, Hizkuntza Eskola Ofizialeko irakasleen eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakasleen eta tailer maisuen Kidegoei aplikatzen zaien merezimendu baremoko 1.4 eta 2.1 ataletan aipatzen diren azterlan eta argitalpenak, bai eta Musikako eta Arte Eszenikoetako katedradun eta irakasleen Kidegoei aplikatzen zaien merezimendu baremoko 1.2, 1.3., 1.4. eta 2.1. atalak ere. Batzordeak honela osatuko dira:

A) Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegorako:

—Batzordeburua, hezkuntza arloko ikuskatzailetzan ari diren funtzionarioen edo Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko funtzionarioen artean hautatua.

—Lau batzordekide, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko funtzionarioak, jardunean daudenak.

B) Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegorako:

—Batzordeburua, hezkuntza arloko ikuskatzailetzan ari diren funtzionarioen edo Bigarren Hezkuntzako Irakasleen nahiz Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoko funtzionarioen artean hautatua.

—Lau batzordekide, jarduneko funtzionarioak guztiak, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen edo Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoetakoak.

C) Hizkuntza Eskola Ofizialeko Irakasleen Kidegorako:

—Batzordeburua, hezkuntza arloko ikuskatzailetzan ari diren funtzionarioen edo Hizkuntza Eskola Ofizialeko Irakasleen Kidegoko funtzionarioen artean hautatua.

—Lau batzordekide, Hizkuntza Eskola Ofizialeko Irakasleen Kidegoko funtzionarioak, jardunean daudenak.

D) Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakasleen eta Tailer Maisuen Kidegoetarako:

—Batzordeburua, hezkuntza arloko ikuskatzailetzan ari diren funtzionarioen edo Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakasleen Kidegoko funtzionarioen artean hautatua.

—Lau batzordekide, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakasleen Kidegoetako funtzionarioak, jardunean daudenak.

E) Musikako eta Arte Eszenikoetako Katedradun eta Irakasleen Kidegoetarako:

—Batzordeburua, hezkuntza arloko ikuskatzailetzan ari diren funtzionarioen edo Musikako eta Arte Eszenikoetako katedradunen artean hautatua.

—Lau batzordekide, Musikako eta Arte Eszenikoetako Katedradunen eta Irakasleen Kidegoetako funtzionarioak, jardunean daudenak.

Balorazio batzordea osatuko duten funtzionarioak lehen deituraren hurrenkera alfabetikoaren eta, hala behar bada, bigarren deiturakoaren arabera izendatzen ahalko dira (kontuan harturik zozketa bat eginen dela Giza Baliabideen Zerbitzuan, zer letratatik hasi behar den finkatzeko).

Aurreko balorazio batzordeetako bakoitzean, kasuan kasuko batzordeak izendatzen duen funtzionarioak eginen du idazkari lana.

Erakunde Sindikalek balorazio batzordean parte hartzen ahal dute.

Batzordeak hautatzeko erabili diren irizpideei jarraikiz, ordeko batzordeburu, batzordekide eta idazkariak ere izendatzen ahalko dira. Halaber, balorazio batzordeen jardueren koordinatzailea izendatzen ahal da. Batzordeko kideak Administrazio Prozedurari buruzko Legean ezartzen diren abstentzio eta errefusatze kasuen menean egonen dira.

Lekualdatze lehiaketako espezialitatearen batean behar beste irakasle ez badago, kidego bereko beste irakasgai batzuk ematen dituzten irakasleen artean edo gai horietan espezialistak direnen artean izendatuko dira batzordekideak. Era berean, lehiatzaile gutxi daudenean batzorde bakarra izendatzen ahalko da espezialitate multzo baterako.

Hamazazpigarrena.—Batzordeek lehiatzaileei emandako puntuazioen aktak Departamentuan jaso ondoren, destinoak behin-behineko esleitutako dira, parte-hartzaileek egindako eskaerei, VI. eranskinetako bareremoaren arabera lortutako puntuazioei eta deialdi honetan xedatutakoari jarraituz.

Deialdi honetako hamargarren arauan bildutako lehentasunezko eskubideei dagokiena galarazi gabe, puntu batuketetan berdinketarik izaten bada, baremoko atalak banan-banan hartuko dira, agertzen diren ordenaren arabera, eta lehenbiziko ataletik hasita puntuaziorik altuena lortzen duena izanen da aurretik. Horrekin ez bada berdinketa hausten, ikusiko da nor duen puntuaziorik altuena azpiataletako bakoitzean, berriz ere baremoan zein ordenatan ageri diren kontuan harturik. Kasu biotan, atal bakoitzean aintzat hartzen den puntuazioa ez da izanen baremoan horrextentzat ezarritako gehieneko puntuazioa baino altuagoa, eta, azpiatalen kasuan, horiek hartzen dituen atalaren gehieneko puntuazioa baino altuagoa. Irizpide hauek aplikatzen direnean, azpiatal batean edo batzuetan haien atalari emandako gehieneko puntuazioa lortzen bada, gainerako azpiatalen puntuazioak ez dira kontuan hartuko.

Beharrezkoa baldin bada, kidegoan sartzeko hautapen prozeduraren deialdia zein urtetan izan zen eta hartan lorturiko puntuazioa izanen dira berdinketa hausteko irizpideak.

Hemezortzigarrena.—Aurreko arauak aipatzen duen destinoen behin-behineko esleipena jendaurrean jarriko da Hezkuntza Departamentuko Argibide eta Agiri Bulegoan.

Lehiatzaileek erreklamazioak aurkeztzen ahalko dituzte behin-behineko ebazpenen kontra, ebazpen horiek jendaurrean jarri eta bost eguneko epean.

Halaber, eta epe horretan bertan, lehiatzaileek deialdi honen hamahirugarren arauan ezartzen diren baldintzetan uko egin ahalko diote lehiaketan parte hartzeari. Erreklamazio edo uko egite horiek hamabigarraren arauan aipatzen diren prozedurei jarraikiz egin beharko dira.

Hemeretzigarrena.—Aurreko arauan aipatutako erreklamazio eta uko egiteak ebatzirik, irakasleak banatu eta lanpostuak betetzeko deialdi honen behin betiko ebazpena onesten duen ebazpena emanen da. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da ebazpen hori. Ebazpen horretan esleitutako lanpostuei ezin izanen zaie uko egin; beraz, parte-hartzaileek lortutako lanpostuetan hasi beharko dute.

Espezialitate desberdinetako lanpostuetarako aurkeztuta ere, destino bakar bat lortzen ahalko da.

Hogeigarrena.—Eszedentzian egon eta irakasleak banatu eta lanpostuak betetzeko prozesu honen ondorioz jarduneko zerbitzura itzultzen diren irakasleek honako hau aurkeztu beharko dute Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuan: Estatu Administrazio, Autonomia Erkidegoetako Administrazio edo Toki Administrazio inongo kidego edo eskalatatik diziplina espediente bidez bereziak ez izatearen eta eginkizun publikoak betetzeko ezgaituak ez izatearen zinpeko aitortpena edo hitz ematea.

Hogeita batgarrena.—Deialdi honetan ezarritakoari jarraituz lortzen diren lanpostu berrien jabetza hartzea 2008ko irailaren 1ean izanen da, eta data horretatik aurrera hasiko dira ondorio administratibo eta ekonomikoak.

Hori hala izanik ere, deialdi honen bidez destino berri bat lortzen duten irakasleek beren jatorrizko ikastetxeetan egon beharko dute ikasturtea amaitzeko aurreikusita dauden jarduerak bukatu arte, betiere hala erabakitzen badu Hezkuntza Departamentuak.

Hamabigarrena.–Errekurtsoak.

Ebazpen honen eta ebazpena aplikatzeko egintzen kontra gora jotzeko errekurtsioa jar daiteke, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariari zuzendua, hilabeteko epean, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Hori guztia Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 57. artikularekin bat, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erki-deari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluei jarraikiz.

Iruñean, 2007ko azaroaren 9an.–Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendaria, Begoña Unzué Vela.

I. ERANSKINA

Bigarren Hezkuntzako institutuen zerrenda

IKASTETXEA	IKASTETXEAREN KODEA	HERRIA	HERRIAREN KODEA	HIZKUNTZA EREDUA
SAN MIGUEL DE ARALAR I BHI	31008268C	ALTSASU	310100001	A, D
SAN MIGUEL DE ARALAR II BHI	31009066C	ALTSASU	310100001	G
DBHI	31008475C	AGOITZ	310190001	G,A,D
DBHI	31008384C	AZAGRA	310420001	G
ALAIZ BHI	31008220C	BARAÑAIN	319010001	D
BARAÑAIN BHI	31007525C	BARAÑAIN	319010001	G,A
TOKI-ONA BHI	31006077C	BERA	312500008	A,B,D
DBHI	31008347C	BERRIOZAR	310160008	G,A,D
ASKATASUNA BHI	31008244C	BURLATA	310600001	D
IBAIALDE-BURLADA BHI	31008530C	BURLATA	310600001	G,A
DBHI	31008372C	ZARRAKAZTELU	310670001	G,A
LA PAZ DBHI	31008335C	CINTRUENIGO	310720001	G
ARTE ESKOLA	31001821C	CORELLA	310770001	G
ALHAMA BHI	31006910C	CORELLA	310770001	G
DBHI	31008396C	CORTES	310780001	G,A
MENDAUR DBHI	31008323C	DONEZTEBE	312210001	A,D
BHI POLITEKNIKOA	31009042C	LIZARRA	310970001	G
TIERRA ESTELLA BHI	31008281C	LIZARRA	310970001	G,A,D
DBHI	31008487C	GARRALDA	311150001	A,D
BHI	31007008C	UHARTE	311220001	G
ENERGIA BERRIZTAGARRIEN GMLHII	31013203C	IMARKOAIN	310880004	G
DBHI	31008499C	LARRAINTZAR	312360012	D
AMAZABAL BHI	31003209C	LEITZA	311490005	D
LEKAROZ-ELIZONDO BHI	31008271C	LEKAROZ/ELIZONDO	310500028	A,D
PABLO SARASATE BHI	31006791C	LODOSA	311570003	G,A
SIERRA DE LEYRE BHI	31008293C	IRUNBERRI/ZANGOZA	312160003	G,A
MARQUES DE VILLENA BHI	31003441C	MARTZILLA	311630001	G,A
JOAQUIN ROMERA DBHI	31008360C	MENDABIA	311650002	G,A
ELORTZIBAR DBHI	31008426C	NOAIN (ELORTZIBAR)	310880005	G,A
DBHI	31008505C	OTSAGABIA	311850004	A,D
DONAPEA IIP	31005051C	IRUÑA	312010002	G,D
BIDEKO AMA BIRJINA IIP	31004573C	IRUÑA	312010002	G
ADAPTACION SOCIAL BHI	31007872C	IRUÑA	312010002	G
AGROFORESTAL BHI	31006922C	IRUÑA	312010002	G
BASOKO BHI	31007823C	IRUÑA	312010002	G,A
BIURDANA BHI	31008256C	IRUÑA	312010002	D
EUNATE BHI	31006090C	IRUÑA	312010002	D
ITURRAMA BHI	31007446C	IRUÑA	312010002	D
JULIO CARO BAROJA-LA GRANJA BHI	31008529C	IRUÑA	312010002	G,A
MARIA ANA SANZ BHI	31007380C	IRUÑA	312010002	G
NAVARRO VILLOSLADA BHI	31004536C	IRUÑA	312010002	G,A
PADRE MORET-IRUBIDE BHI	31004500C	IRUÑA	312010002	G,A
PEDRO DE URSUA BHI	31013343C	IRUÑA	312010002	G,A,D
PLAZA DE LA CRUZ BHI	31008301C	IRUÑA	312010002	G,A
SAN JUAN-DONIBANE BHI	31009054C	IRUÑA	312010002	G
SANITARIA BHI	31007011C	IRUÑA	312010002	G
FELIX URABAYEN NHBHI	31008839C	IRUÑA	312010002	G
ANDRES MUÑOZ GARDE HLHIP	31006983C	IRUÑA	312010002	G
ARTE ESKOLA	31005085C	IRUÑA	312010002	G
RIBERA DEL ARGA BHI	31005115C	AZKOIEN	312020001	G,A
RONCAL DBHI	31008517C	ERRONKARI	312100003	G,A,D
EGA BHI	31008219C	SAN ADRIAN	312150001	G,A
BHI POLITEKNIKOA	31009078C	TAFALLA	312270001	G
SANCHO III EL MAYOR BHI	31008311C	TAFALLA	312270001	G,A
ETI IIP	31013173C	TUTERA	312320001	G
BENJAMIN DE TUDELA BHI	31005735C	TUTERA	312320001	G,A
VALLE DEL EBRO BHI	31013185C	TUTERA	312320001	G,A
TORRE MONREAL HLHIP	31005759C	TUTERA	312320001	G
DEL CAMINO DBHI	31008463C	VIANA	312510002	G
BHI	31008232C	ZIZUR NAGUSIA	310760002	G,A,D
CATALINA DE FOIX HLHIP	31013367C	ZIZUR NAGUSIA	310760002	G

Oharrak:

1. "Sierra de Leyre" BHIk Irunberrin eta Zangozan ditu instalazioak; beraz, destinoa ikastetxe horretan eskuratzen dutenak bi herrietako edozeinetan arituko dira.

Lekaroz/Elizondo BHIk Elizondon eta Lekarozen ditu instalazioak; beraz, destinoa ikastetxe horretan eskuratzen dutenak bi herrietako edozeinetan arituko dira.

2. A hizkuntza eredua: irakaskuntza gaztelaniaz; euskara irakasgai bat da.

B hizkuntza eredua: irakaskuntza euskaraz; gaztelania irakasgai bat da eta gainera irakasgai batean edo gehiagotan erabiltzen den hizkuntza da.

D hizkuntza eredua: irakaskuntza euskaraz; gaztelania irakasgai bat da.

G hizkuntza eredua: irakaskuntza gaztelaniaz.

II. ERANSKINA

Bigarren Hezkuntzako Psikologia eta Pedagogia espezialitateko irakasleek eskatzen ahal dituzten ikastetxeen zerrenda

Oharra: Psikologia eta Pedagogiako lanpostuak ibiltariak izaten ahal dira; informazio gisa (I) batez azaltzen dira Psikologia eta Pedagogiako lanpostu ibiltariak dituzten ikastetxeak.

IKASTETXEA	IKASTETXEAREN KODEA	HERRIA	HERRIAREN KODEA	HIZKUNTZA EREDUA
SAN MIGUEL DE ARALAR I BHI	31008268C	ALTSASU	310100001	A,D
SAN MIGUEL DE ARALAR II BHI	31009066C	ALTSASU	310100001	G
DBHI	31008475C	AGOITZ	310190001	G,A,D
DBHI	31008384C	AZAGRA	310420001	G
ALAIZ BHI	31008220C	BARAÑAIN	319010001	D
BARAÑAIN BHI	31007525C	BARAÑAIN	319010001	G,A
TOKI-ONA BHI	31006077C	BERA	312500008	A,B,D,
DBHI	31008347C	BERRIOZAR	310160008	G,A,D
ASKATASUNA BHI	31008244C	BURLATA	310600001	D
IBAIALDE-BURLADA BHI	31008530C	BURLATA	310600001	G,A
DBHI	31008372C	ZARRAKAZTELU	310670001	G,A
LA PAZ DBHI	31008335C	CINTRUENIGO	310720001	G
ARTE ESKOLA	31001821C	CORELLA	310770001	G
ALHAMA BHI	31006910C	CORELLA	310770001	G
DBHI	31008396C	CORTES	310780001	G,A
MENDAUR DBHI	31008323C	DONEZTEBE	312210001	A,D
BHI POLITEKNIKOA	31009042C	LIZARRA	310970001	G
TIERRA ESTELLA BHI	31008281C	LIZARRA	310970001	G,A,D
DBHI	31008487C	GARRALDA	311150001	A,D
BHI	31007008C	UHARTE	311220001	G
ENERGIA BERRIZTAGARRIEN GMLHII	31013203C	IMARKOAIN	310880004	G
DBHI	31008499C	LARRAINTZAR	312360012	D
AMAZABAL BHI	31003209C	LEITZA	311490005	D
LEKAROZ-ELIZONDO BHI	31008271C	LEKAROZ/ELIZONDO	310500028	A,D
PABLO SARASATE BHI	31006791C	LODOSA	311570003	G,A
SIERRA DE LEYRE BHI	31008293C	IRUNBERRI/ZANGOZA	312160003	G,A
MARQUES DE VILLENA BHI	31003441C	MARTZILLA	311630001	G,A
JOAQUIN ROMERA DBHI	31008360C	MENDABIA	311650002	G,A
ELORTZIBAR DBHI	31008426C	NOAIN (ELORTZIBAR)	310880005	G,A
DBHI	31008505C	OTSAGABIA	311850004	A,D
DONAPEA IIP	31005051C	IRUÑA	312010002	G,D
BIDEKO AMA BIRJINA IIP	31004573C	IRUÑA	312010002	G
ADAPTACION SOCIAL BHI	31007872C	IRUÑA	312010002	G
AGROFORESTAL BHI	31006922C	IRUÑA	312010002	G
BASOKO BHI	31007823C	IRUÑA	312010002	G,A
BIURDANA BHI	31008256C	IRUÑA	312010002	D
EUNATE BHI	31006090C	IRUÑA	312010002	D
ITURRAMA BHI	31007446C	IRUÑA	312010002	D
JULIO CARO BAROJA-LA GRANJA BHI	31008529C	IRUÑA	312010002	G,A
MARIA ANA SANZ BHI	31007380C	IRUÑA	312010002	G
NAVARRO VILLOSLADA BHI	31004536C	IRUÑA	312010002	G,A
PADRE MORET-IRUBIDE BHI	31004500C	IRUÑA	312010002	G,A
PEDRO DE URSUA BHI	31013343C	IRUÑA	312010002	G,A,D
PLAZA DE LA CRUZ BHI	31008301C	IRUÑA	312010002	G,A,
SAN JUAN-DONIBANE BHI	31009054C	IRUÑA	312010002	G
SANITARIA BHI	31007011C	IRUÑA	312010002	G
FELIX URABAYEN NHBHI	31008839C	IRUÑA	312010002	G
CPEIP ANDRES MUÑOZ GARDE	31006983C	IRUÑA	312010002	G
ARTE ESKOLA	31005085C	IRUÑA	312010002	G
RIBERA DEL ARGA BHI	31005115C	AZKOIEN	312020001	G,A
RONCAL DBHI	31008517C	ERRONKARI	312100003	G,A,D
EGA BHI	31008219C	SAN ADRIAN	312150001	G,A
BHI POLITEKNIKOA	31009078C	TAFALLA	312270001	G
SANCHO III EL MAYOR BHI	31008311C	TAFALLA	312270001	G,A
ETI IIP	31013173C	TUTERA	312320001	G
BENJAMIN DE TUDELA BHI	31005735C	TUTERA	312320001	G,A
VALLE DEL EBRO BHI	31013185C	TUTERA	312320001	G,A
TORRE MONREAL HLHIP	31005759C	TUTERA	312320001	G
DEL CAMINO DBHI	31008463C	VIANA	312510002	G
BHI	31008232C	ZIZUR NAGUSIA	310760002	G,A,D
CATALINA DE FOIX HLHIP	31013367C	ZIZUR NAGUSIA	310760002	G

Oharrak:

1. "Sierra de Leyre" BHIk Irunberrin eta Zangozan ditu instalazioak; beraz, destinoa ikastetxe horretan eskuratzen dutenak bi herrietako edozeinetan arituko dira

Lekaroz/Elizondo BHIk Elizondon eta Lekarozen ditu instalazioak; beraz, destinoa ikastetxe horretan eskuratzen dutenak bi herrietako edozeinetan arituko dira.

2. A hizkuntza eredua: irakaskuntza gaztelaniaz; euskara irakasgai bat da.

B hizkuntza eredua: irakaskuntza euskaraz; gaztelania irakasgai bat da eta gainera irakasgai batean edo gehiagotan erabiltzen den hizkuntza da.

D hizkuntza eredua: irakaskuntza euskaraz; gaztelania irakasgai bat da.

G hizkuntza eredua: irakaskuntza gaztelaniaz.

III. ERANSKINA

Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleak

IKASTETXEA	IKASTETXEAREN KODEA	HERRIA
HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA.....	31007884C	IRUÑA
URRUTIKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA.....	31008611C	IRUÑA
HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA.....	31007781C	TUTERA

IV. ERANSKINA

Musikako eta Arte Eszenikoetako ikastetxeen zerrenda

IKASTETXEA	IKASTETXEAREN KODEA	HERRIA
"PABLO SARASATE" MUSIKA KONTSERBATORIO PROFESIONALA.....	31007070C	IRUÑA
NAFARROAKO GOI MAILAKO MUSIKA KONTSERBATORIOA.....	31013148C	IRUÑA
DANTZA ESKOLA.....	31007963C	IRUÑA

V. ERANSKINA

Arte Eskolen zerrenda

IKASTETXEA	IKASTETXEAREN KODEA	HERRIA
ARTE ESKOLA.....	31001821C	CORELLA
ARTE ESKOLA.....	31005085C	IRUÑA

VI. ERANSKINA

*Merezimenduen baremoa**Bigarren Hezkuntzako Irakasleen, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen eta Arte Plastikokoetako eta Diseinuko Irakasleen eta Tailer Maisuen Kidegoak*

I.-Urriaren 2ko 2112/1998 Errege Dekretuaren II. eranskineko I. atalean espresuki aipatutako merezimenduak.

1.1. Katedradunak

1.1.1. Katedradun izateagatik.

Balorazioa: 6 puntu.

Egiaztagiria:

Titulu administratiboaren fotokopia konpultsatua edo, hala denean, izendapena ateratzen den Aldizkari edo Egunkari Ofizialeko kredentzialarena.

1.1.2. Katedradun izanik, antzinasun urte bakoitzeko.

Balorazioa: 0,50 puntu.

Urte zatiak baloratu behar direnean, 0,04 puntu emanen da hilabeteke.

Egiaztagiria:

Titulu administratiboaren fotokopia konpultsatua, karrerako funtzionario izendatu zutenetik karguaz jabetzeko nahiz uzteko izan dituen eginbideekin batera, edo, behar izanez gero, Langileen Erregistroan izena emana izatearen agiriena.

Horretarako, katedradun gisa duten antzinasuna, LOGSEK indarra hartu baino lehen, Katedradunen Kidegoetan eta Arte Aplikatuaren eta Lanbide Artistikoen Eskoletako Bukerako Irakasleen kidegoan egiazki emaniko zerbitzuen arabera neurtuko da.

1.2. Antzinasuna (ikus lehenbiziko oharra)

1.2.1. Lanpostu hutsari dagokion kidegoan karrerako funtzionario gisa eta jardunean emandako zerbitzuak, urte bakoitzeko.

Balorazioa: 2 puntu.

Urte zatiak baloratu behar direnean, 0,16 puntu emanen da hilabeteke.

Egiaztagiria: titulu administratiboaren fotokopia konpultsatua karguaz jabetzeko nahiz uzteko eginbideekin batera, edo, behar izanez gero, Langileen Erregistroan izena emana izatearen agiriena.

1.2.2. LOGSEK aipatzen dituen irakasleen beste kidego nahiz eskaletan, maila berekoetan zein goragokoetan, karrerako funtzionario gisa emandako zerbitzuak, urte bakoitzeko.

Balorazioa: 1,50 puntu.

Urte zatiak baloratu behar direnean, 0,12 puntu emanen da hilabeteke.

Egiaztagiria: titulu administratiboaren fotokopia konpultsatua karguaz jabetzeko nahiz uzteko eginbideekin batera, edo, behar izanez gero, Langileen Erregistroan izena emana izatearen agiriena.

1.2.3. LOGSEK aipatzen dituen irakasleen beste kidego nahiz eskaletan, beheragoko mailetan, karrerako funtzionario gisa emandako zerbitzuak, urte bakoitzeko.

Balorazioa: 0,75 puntu.

Urte zatiak baloratu behar direnean, 0,06 puntu emanen da hilabeteke.

Egiaztagiria: titulu administratiboaren fotokopia konpultsatua karguaz jabetzeko nahiz uzteko eginbideekin batera, edo, behar izanez gero, Langileen Erregistroan izena emana izatearen agiriena.

1.2.4. Ondoko egoera hauetan, jarraian egindako urte bakoitzeko: lehiaketa nondik egiten duen, ikastetxe eta lanpostu hartan behin betiko destinoa duen funtzionarioa; edo atzerrian aldi baterako atxikitako lanpostuan dagoena; hezkuntzako ikuskapen lanetan, Funtzio Publikoaren Erreformarako Neurri buruzko Legeko hamabosgarren xedapen gehigarriaren arabera; edo hezkuntza administrazioaren menpeko diren beste lanpostu batzuetan edo ikerketa nahiz irakasle laguntzeko zerbitzuetan, betiere atxikipen horiek bere irakaskuntzako destinoa galtzea badakarkio.

Atxikipen kasuetan, atxikipena bukatu eta lehiaketa honetan parte hartu bitartean igarotako denbora 1.2.5 atalean baloratuko da (ikus bigarren oharra):

Lehenbiziko urtea eta bigarrena: 2 puntu urteko.

Hirugarren urtea: 3 puntu.

Laugarren urtea eta bosgarrena: 4 puntu urteko.

Seigarren urtea: 5 puntu.

Zazpigarren urtea eta zortzigarrena: 4 puntu urteko.

Bederatzigarren urtea: 3 puntu.

Hamargarren urtea eta hurrengoak: 2 puntu urteko.

Lehiaketan zein kidegotan parte hartzen den, hartan karrerako funtzionario gisa emandako zerbitzuak soilik hartuko dira kontuan atal honetan.

Epaia edo errekurtsioaren ebazpena bete beharragatik, nahitaezko eszedentzia egoeratik etortzeagatik edo beraien lanpostua betiko eta espresuki desagertzeagatik behin betiko destinoa galdu dutelako lehiaketan parte hartzea behartuta dauden funtzionarioen kasuan, atal honetako aipatzen dituen zerbitzuak neurtzerakoan, behin betikoz izandako azken lanpostua izanen da lehiaketako abiapuntuko lanpostu. Horri gaineratuko zaizkio, dagokionean, edozein lanpostutan geroago eta behin-behinekotasunez emandako zerbitzuak. Eskubidea dute, gainera, kendutako lanpostuaren aurreko azken lanpostuan behin betiko gisa eman zituzten zerbitzuak jatorrizko lanpostuko zerbitzualdiari gehitzeko. Jarraian izandako lanpostu kentzeak jasan dituzten irakasleen kasuan, jarraian kendu zaizkien lanpostuetan behin betiko gisa emandako zerbitzuak sartuko dira gehitze horretan.

Lanpostu kentze horren ondorioak jasanik beste behin betiko destinoan izan ez duen irakasleak, zehaztu diren ondorioetarako, ondoko puntuazioa gehitzeko eskubidea izanen du: puntu bat, behin-behineko destinoarekin emandako urte bakoitzeko.

Aurretik aipatutako irizpideak diziplina-zehapen baten ondorioz bizilekua aldatu beharra dakarren destinoetik parte hartzen duten funtzionarioei ere aplikatuko zaizkie.

Titular moduan zuten lanpostua kendu ondotik eskuratu duten behin betiko lehenengo destinoan zerbitzuak ematen ari diren funtzionarioek eskubidea izanen dute, lehiaketara aurkeztzen diren honetan, orain dauden ikastetxean emandakotzat har dakizkien lanpostua kendu zitzaizen ikastetxean emandako zerbitzu haiek, bai eta lanpostu kentze horren ondotik behin-behineko gisa emandakoak ere. Irizpide hau bera aplikatuko zaie, epaia bete behar izateagatik, errekurtsioaren ebazpenaren indarrez edo nahitaezko eszedentziatik etortzeagatik beren destinoa galdu ondotik, eskuratu duten lehenbiziko behin betiko destinoan zerbitzuak ematen ari direnei.

1.2.5. Destinoaren zain dauden karrerako funtzionarioak eta borondatez lehenbiziko aldiz parte hartzen duten funtzionarioak, baldin 1.2.4 azpiatalari dagokion puntuazioaren ordez azpiatal honen puntuazioa aukeratzeko badute, baremo honen hirugarren oharrean zehazten den moduan (ikus hirugarren oharra).

Balorazioa: zerbitzuko urte bakoitzeko, puntu 1.

Egiaztagiria: titulu administratiboaren fotokopia konpultsatua karguaz jabetzeko nahiz uzteko eginbideekin batera, edo, behar izanez gero, Langileen Erregistroan izena emana izatearen agiriena.

1.2.6. Lehiaketako abiapuntuko lanpostua, behin betiko izaera duena, zailtasun bereziko gisara dagoenean sailkatuta administrazioan, ondorengo puntuazioa gehituko zaio 1.2.4 atalekoari, halakotzat hartzen denetik hasita:

Lehenbiziko urtea eta bigarrena: puntu bat urteko.

Hirugarren urtea: 1,50 puntu.

Laugarren urtea eta bosgarrena: 2 puntu urteko.

Seigarren urtea: 2 puntu.

Zazpigarren urtea eta zortzigarrena: 2 puntu urteko.

Bederatzigarren urtea: 1,50 puntu.

Hamargarren urtea eta hurrengoak: puntu bat urteko.

1.3. Merezimendu akademikoak (gehienez ere 10 puntu).

Baloratzerakoan, Espainiar Estatuan balio ofiziala duten tituluak bakarrik izanen dira kontuan.

1.3.1. Doktoretzak eta aparteko sariak:

–Zein kidegotatik parte hartzen den, hartan sartzeko aurkeztutako titulazioan doktore titulua izateagatik.

Balorazioa: 5 puntu.

Egiaztagiria: tituluaren fotokopia konpultsatua edo emateko esku-bideak ordaindu izanaren ziurtagiria, 1988ko uztailaren 8ko Aginduaren arabera (13ko "Estatuko Aldizkari Ofiziala").

–Zein kidegotatik parte hartzen den, hartan sartzeko aurkeztutako titulazioan doktoretza ikasketetan aparteko saria izateagatik.

Balorazioa: puntu 1.

Egiaztagiria:

horren egiaztagiria.

–Zein kidegotatik parte hartzen den, hartan sartzeko aurkeztutako titulazioan aparteko saria izateagatik.

Balorazioa: 0,50 puntu.

Egiaztagiria:

horren egiaztagiria.

–Beste lizentziatura batzuetako doktore tituluagatik:

Balorazioa: 3 puntu.

Egiaztagiria:

horren egiaztagiria.

–Beste doktoretza batean jasotako aparteko sariagatik:

Balorazioa: 0,50 puntu.

Egiaztagiria:

horren egiaztagiria.

–Beste lizentziatura batzuetan jasotako aparteko sariagatik:

Balorazioa: 0,25 puntu.

Egiaztagiria:

horren egiaztagiria.

1.3.2. Unibertsitateko beste titulazio batzuk.

Honela baloratuko da Unibertsitateko Tituluaren Katalogo Ofizialean agertzen diren tituluak edukitzea:

–Lehen zikloko titulazioak:

Bigarren eta gainerako Diplomaturak, Ingeniaritza Teknikoak, Arkitektura Teknikoa edo ondorio guztietarako legez baliokide diren tituluak, eta Lizentziatura, Arkitektura edo Ingeniaritzako lehen zikloko ikasketak:

Balorazioa: 3 puntu bakoitzeko.

Izangaiaren lehen titulua edo era horretako ikasketak ez dira inolaz ere baloratuko.

–Bigarren zikloko titulazioak:

Lizentziatuetako, Ingeniaritzetako eta Arkitekturako bigarren zikloko ikasketak edo ondorio guztietarako legez baliokide diren tituluak:

Balorazioa: 3 puntu.

A taldeko irakaskuntza kidegoetako funtzionarioen kasuan, ez zaizkio inoiz horrelako lehen titulua edo ikasketak baloratuko.

Egiaztagiria: kidegoan sartzeko erabilitako tituluaren fotokopia konpultsatua, eta merezimendu gisa aurkeztu dituen guztiena, edo esku-bideak ordaindu izana frogatzen duten ziurtagiriaren, 1988ko uztailaren 8ko Aginduan (13ko "Estatuko Aldizkari Ofiziala") aurreikusitako bezala. Lehen zikloko ikasketak badira, haiek gainditu izana frogatzen duten ziurtagiri akademikoak.

1.3.3. Araubide bereziko ikasketen titulazioak.

Hizkuntza Eskola Ofizialetako eta Musika edo Dantza Kontserbatorietako araubide bereziko ikasketen titulazioak honela baloratuko dira:

–Musika eta Dantza:

Erdi mailakoa: puntu 1.

–Hizkuntza Eskola Ofizialetako ikasketak:

Oinarritzako zikloa: puntu 1.

Goi mailako zikloa: puntu 1.

Hizkuntza Eskola Ofizialeko Gaitasun Agiriak bi zikloak hartzen ditu bere baitan.

Egiaztagiria: tituluaren fotokopia konpultsatua eta merezimendu gisa aurkeztutakoena edo, bestela, titulua lortzeko ikasketak egin izanaren ziurtagiriaren.

1.3.4. EGA titulua edo balio berekoa.

Balorazioa: 2 puntu.

Egiaztagiria: EGAREN edo titulu homologatuen fotokopia konpultsatua.

Oharrak 1.3.3. eta 1.3.4 atalei:

1. Hizkuntza bereko titulu bat baino gehiago aurkeztuz gero, baliokideak badira haietako bat bakarrik hartuko da kontuan. Titulu horietako bat Hizkuntza Eskola Ofizial batek emandako goi mailako zikloarena bada, 1.3.3 ataleko puntuazioa emanen da.

2. EGA titulua edo titulu baliokide bat aurkeztu bada, atal honetan ez da punturik emanen Euskararen oinarritzako zikloarengatik.

1.4. Prestakuntza eta hobekuntza (gehienez ere 5 puntu).

1.4.1. Parte-hartzaileak eskuratu nahi duen lanpostuaren espezialitateko gai zientifiko eta didaktikoak hobetzeko xedea duten ikastaroak edo eskola antolamenduetan edo hezkuntzari aplikatutako teknologia berriekin zerikusia dutenak gaindituak izatea. Ikastaro horien antolamendua: hezkuntza arloan eskumena duten administrazioak, aipatu administrazio horiek onartu edo homologatutako irabazi asmorik gabeko erakundeak, eta unibertsitateak. Puntuazioa: 0,10 puntu ikastaroko hamar orduko, ikastaroak gainditu eta egiaztatzen badira. Ondorio horietarako, ikastaro guztietako orduen batura egingen da eta ez da kontuan hartuko hamar ordutik beherako gerakina.

Ikastaroak kredituetan emanak badira, kreditu bakoitzak 10 orduren balioa izanen du.

Balorazioa: gehienez 4 puntu.

Egiaztagiria: ikastaroen ziurtagiria, iraupena agertuko duena, ordutan espresuki adierazia. Irabazi asmorik gabeko erakundeek antolatutako kasuan, ziurtagirian edo eranskin batean egiaztatu beharko dute onarpena edo homologazioa badutela.

1.4.2. Hezkuntza arloko prestakuntza eta hobekuntzako beste jarduerak batzuenagatik, ikastaroak ematea barne.

Balorazioa: gehienez puntu bat.

Egiaztagiria:

horien ziurtagiriak.

1.4.3. Lehiatzailearen kidegoari dagokion espezialitate bakoitzeko, kidegoan sartzeko erabilitako hori izan ezik, eta betiere ekainaren 4ko 850/1993 Errege Dekretuaren III. tituluak arautzen duen espezialitate berriak eskuratzeko prozeduraren bidez eskuratua bada.

Balorazioa: puntu 1.

Egiaztagiria:

Espezialitate berria eskuratu izana egiaztatzen duen kredentzialaren fotokopia konpultsatua (ekainaren 4ko 850/1993 Errege Dekretuari jarraituz).

II.–Beste merezimendu batzuk (gehienez ere 20 puntu).

2.1. Argitalpenak: gehienez 5 puntu.

2.1.1. Argitalpen didaktikoak, lehiaketako gai buruzkoak, edo zerikusi zuzena dutenak curriculumaren alderdi orokor edo zeharkakoekin edo eskolaren antolamenduetan.

Balorazioa: gehienez 2,50 puntu.

Egiaztagiria:

Argitaratutako aleak.

Azaroaren 2ko 2984/1972 Dekretuaren arabera ISBN idaztera beharrik egonik horrelakorik ez dutenak ez dira baloratuko.

2.1.2. Lehiaketako gai buruzko argitalpen zientifikoak eta proiektu eta berriztapen teknikoak.

Balorazioa: gehienez 2,50 puntu.

Egiaztagiria:

Argitaratutako aleak.

Azaroaren 2ko 2984/1972 Dekretuaren arabera ISBN idaztera beharrik egonik horrelakorik ez dutenak ez dira baloratuko.

2.1.1 eta 2.1.2 atalen arabera aurkeztutako merezimenduak atal horietako batean bakarrik puntuatuko dira.

2.1.3. Merezimendu artistikoak:

Autonomia, estatu eta nazioarte mailako erakusketa edo lehiaketetan jasotako sariak.

Autorea izanik estreinatutako konposizioak, argitalpenak, bakarlarik gisa egindako kontzertuak, grabaketak legezko gordailuekin, autonomia, estatu eta nazioarte mailako sariketa eta lehiaketetan jasotako sariak.

Balorazioa: gehienez 2,50 puntu.

Egiaztagiria: programak, kritikak, aleak eta, halakorik dagoenean, jasotako sariaren ziurtagiriak.

2.2. Egindako lanen balorazioa (ikus laugarren oharra) (gehienez ere 10 puntu).

2.2.1. Eskainitako lanpostu hutsak zein ikastetxetakoak diren, halako ikastetxe publikoetan zuzendari lanetan emandako urte bakoitzeko.

Balorazioa: 3 puntu.

Egiaztagiria: izendapenaren fotokopia konpultsatua, karguaz jabetzeko nahiz uzteko eginbideekin edo, bestela, ikasturte honetan karguan jarraitzen duela adierazten duen ziurtagiria.

Irakasleen eta Baliabideen Zentroetan edo autonomia erkidegoek hezkuntza arloan dauzkaten eskumenak gauzatzuz ezarri dituzten antzeko erakundeetan zuzendari lanetan emandako urte bakoitzeko (zein kidegotatik parte hartzen duten, horretan karrerako funtzionario gisa arituz).

Balorazioa: 3 puntu.

Egiaztagiria: izendapenaren fotokopia konpultsatua, karguaz jabetzeko nahiz uzteko eginbideekin edo, bestela, ikasturte honetan karguan jarraitzen duela adierazten duen ziurtagiria.

Urte zatiak baloratu behar direnean, 0,25 puntu emanen da hilabete.

2.2.2. Eskainitako lanpostu hutsak zein ikastetxetakoak diren, halako ikastetxe publikoetan zuzendariorde, idazkari edo ikasketaburu lanetan, eta horiekin parekatutakoetan, emandako urte bakoitzeko.

Balorazioa: 2 puntu.

Urte zatiak baloratu behar direnean, 0,16 puntu emanen da hilabete.

Egiaztagiria: izendapenaren fotokopia konpultsatua, karguaz jabetzeko nahiz uzteko eginbideekin edo, bestela, ikasturte honetan karguan jarraitzen duela adierazten duen ziurtagiria.

2.2.3. Eskainitako lanpostu hutsak zein ikastetxetakoak diren, halako ikastetxe publikoetan zuzendaritzako beste kargu batzuetan emandako urte bakoitzeko.

Balorazioa: puntu 1.

Urte zatiak baloratu behar direnean, 0,08 puntu emanen da hilabete.

Egiaztagiria: izendapenaren egiaztagiriaren fotokopia konpultsatua, karguan egiazki emandako denbora adierazten duena.

2.2.4. Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Helduen Hezkuntzako, Lanbide Heziketako, Arte arloko eta Hizkuntzetako ikastetxe publikoetan Mintegiko, Departamentuko edo Saileko buru gisa, Etengabeko Prestakuntzako aholkulari edo Hezkuntzako eta Psikopedagogiako Orientazio Talde bateko buru gisa emandako urte bakoitzeko.

Balorazioa: 0,50 puntu.

Urte zatiak baloratu behar direnean, 0,04 puntu emanen da hilabete.

Egiaztagiria: izendapenaren egiaztagiriaren fotokopia konpultsatua, karguan egiazki emandako denbora adierazten duena.

2.2.5. Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza administrazioan Unitate Teknikoko buru, bulegoburu, atalburu, Zerbitzuko zuzendari edo horiekin parekatutako lanpostuetan emandako urte bakoitzeko:

Balorazioa: 1,50 puntu.

Egiaztagiria: izendapena edo jabetza hartzea eta uztea azaltzen duen egiaztagiriaren fotokopia konpultsatua, edo bestela, ikasturte honetan karguan jarraitzen duela adierazten duenarena.

Zein kidegotatik parte hartzen duen, hari esleitutako destinoko osagarriaren maila bereko edo goragoko lanpostuetan beste hezkuntza administrazio batzuetan egindako zerbitzu urte bakoitzeko.

Balorazioa: 1,50 puntu.

Egiaztagiria: izendapenaren fotokopia konpultsatua, karguaz jabetzeko nahiz uzteko eginbidea agerian duena edo, bestela, ikasturte honetan karguan jarraitzen duela adierazten duen ziurtagiria.

Urte zatiak baloratu behar direnean, 0,12 puntu emanen da hilabete.

Oharrak:

Lehenbizikoa.–Antzinasunaren balorazioa.

1. 1.2.1, 1.2.4 eta 1.2.5 atalei dagokienez, urte gisa baloratuko dira ikasturtea hasten denetik bukatu arte ematen diren egiazko zerbitzuak.

2. 1.2.2 eta 1.2.3 ataletan aipatu zerbitzuak ez dira kontuan hartuko batera eman diren urteetan, edo 1.2.1, 1.2.4 edo 1.2.5 ataleta-koekin batera eman direnean.

3. 1.2.1. eta 1.2.4. atalen ondorioetarako, kontaktu eginen dira zerbitzu berezien egoeran emandako zerbitzuak, halakotzat hartuak direnean abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen 29.2 artikuluan, bai eta abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen aurreko xedapenen arabera antzeko izaera duten egoerak ere. Halaber, ondorio horietarako zenbatuko dira

eszedentzia bereziko zerbitzuak, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 27. artikuluarri jarraikiz emanak (foru dekretu hori maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legeak aldatu zuen).

Bigarrena.–Zer ikastetxetatik abiatuta hartu nahi den parte lehiaketan.

Baremoko 1.2.4. atalaren ondorioetarako, lehiaketan parte hartzeko eskabidea zein ikastetxetatik egiten den jakiteko, izangaiaren behin betiko destinoarena hartuko da, edo zer ikastetxeri dagoen atxikia, hura, baldin eta egoera horren ondorioz irakasle destinoa galtzen bada. Atal honengatik, bakarrik kontatuko dira karrerako funtzionario bezala lanpostu hutsaren kidegoan emandako zerbitzuak. Aurreko erroaldean xedatutakoan ez dira sartzen behin betiko destinoa galdu dutelako lehiaketan parte hartzera behartutako funtzionarioak, bai epaia bete beharrik edo errekurtsioa ebaztearen ondorioz, bai nahitaezko eszedentziatik etortzeagatik edo haien lanpostua kendu delako deialdian ezarritakoaren arabera. Funtzionario horiei baremoko 1.2.4. atalean kasu horietarako xedatutakoa aplikatuko zaie.

Hirugarrena.–Lehenbiziko aldiz eta beren borondatez parte hartzen duten karrerako funtzionarioak.

Lehenbiziko aldiz beren borondatez parte hartzen duten karrerako funtzionarioek baremo honetako 1.2.4 ataleko puntuazioa edo 1.2.5eko hautatzen ahalko dute, eta hala adierazi parte hartzeko eskabidean.

Baldin eta 1.2.5 ataleko puntuazioa hautatzen badute, karrerako funtzionario gisa destinoaren zain emandako zerbitzu urteez gainera, behin betiko destinoarekin zein ikastetxetatik hartzen duten parte, hartan emandakoak ere kontatuko zaizkie.

Parte hartzeko eskabidean bereizi duten aukera adierazten ez badute, baremo honetako 1.2.4 ataleko puntuazioa hautatu dutela ulertuko da.

Laugarrena.–Egindako lanaren balorazioa.

1. 2.2.1, 2.2.2, 2.2.3, 2.2.4 eta 2.2.5 atalengatik, lehiaketan zein kidegotan parte hartzen den, hartako karrerako funtzionario gisa zuzendaritza karguetan izandako jarduna solik baloratuko da.

2. Helduentzako Ikastetxeetan egindako lanaren balorazioa eginen da, baldin eta ikastetxe horietan atal honek aipatzen dituen ikastetxetako ikasketa berak eman badira.

3. Merezimenduen baremoko 2.2.1, 2.2.2 eta 2.2.3 ataletan aurreikusitako ondorioetarako, honako ikastetxe publiko hauek hartuko dira bigarren hezkuntzako ikastetxe publikoen parekotzat:

–Batxilergoko institutuak.

–Lanbide Heziketako institutuak.

–Helduentzako Ikastetxeak, betiere ikastetxe horietan atal hauetan aipatutako ikasketa berak ematen badira.

–Irakaskuntza Integratuen Ikastetxeak.

4. Merezimenduen baremoko 2.2.1 atalean ezarri diren ondorioetarako, zuzendaritza kargu parekatutzat hartuko da:

–Zuzendari albokoa.

5. Merezimenduen baremoko 2.2.2 atalean ezarri diren ondorioetarako, zuzendaritza kargu parekatutzat honako hauek hartuko dira gutxienez:

–Atal honetan aipatu karguak, Lanbide Heziketako Ataletan jardun denean.

–Idazkari albokoa.

–Ikasketaburu albokoa.

–Egoitzako burua.

–Batxilergoko Institutuko ikasketaburuaren delegatua edo autonomia erkidegoetan horren pareko direnak.

–Atal Delegatuko zuzendaria-ikasketaburuak.

–Atal filialeko zuzendaria.

–Irakaskuntza Ertaineko Patronatuko zentro ofizialeko zuzendaria.

–Lanbide Heziketako ikastetxeen administratzailea.

–Irakasle delegatua, Lanbide Heziketako Atalaren kasuan.

6. Merezimenduen baremoko 2.2.3 atalarengatik honako zuzendaritza kargu hauek puntuatuko dira gutxienez:

–Idazkariordea.

–Gauko ikasketen delegatua-ikasketaburuak Atal Delegatuan.

–Batxilergoko Institutuetako Hedapenetako idazkariaren delegatua edo autonomia erkidegoetan horien pareko direnak.

–Toki Korporazioekin egindako hitzarmeneko zentro homologatuetako zuzendari, ikasketaburu edo idazkaria.

–Ikastetxe libre adoptatuko zuzendaria, Langile Erregistroko zenbakia duena.

–Irakaskuntza Ertainaren Patronatuko zentro ofizialeko idazkaria.

7. Merezimenduen baremoko 2.2.4 atalean ezarri diren ondorioetarako, kargu parekatutzat honako hauek hartuko dira gutxienez:

–Mintegiburu albokoa.

–Departamentuburu albokoa.

8. Kargu batean baino gehiagotan batera jardunez gero, ezin izanen da puntuazioa pilatu.

Bosgarrena.–Urteko zati den hilabete bakoitzaren kontaketa eginen da, bakarrik, baremoan berariaz ezarritako ataletan. Gainerako kasuetan ez da urte zatiko puntuaziorik emanen.

Musikako eta Arte Eszenikoetako katedradunen eta irakasleen kidegoak

I.–Urriaren 2ko 2112/1998 Errege Dekretuaren II. eranskineko I. atalean espresuki aipatutako merezimenduak.

1.1. Antzinasuna (ikus lehenbiziko oharra).

1.1.1. Lanpostu hutsari dagokion kidegoan karrerako funtzionario gisa eta jardunean emandako zerbitzuak, urte bakoitzeko.

Balorazioa: 2 puntu.

Urte zatiak baloratu behar direnean, 0,16 puntu emanen da hilabeteke.

Egiaztagiria: titulu administratiboaren fotokopia konpultsatua karguaz jabetzeko nahiz uzteko eginbideekin batera, edo, behar izanez gero, Langileen Erregistroan izena emana izatearen agiriena.

1.1.2. LOGSEK aipatzen dituen irakasleen beste kidego nahiz eskaletan, maila berekoetan zein goragokoetan, karrerako funtzionario gisa emandako zerbitzuak, urte bakoitzeko.

Balorazioa: 1,50 puntu.

Urte zatiak baloratu behar direnean, 0,12 puntu emanen da hilabeteke.

Egiaztagiria: titulu administratiboaren fotokopia konpultsatua karguaz jabetzeko nahiz uzteko eginbideekin batera, edo, behar izanez gero, Langileen Erregistroan izena emana izatearen agiriena.

1.1.3. LOGSEK aipatzen dituen irakasleen beste kidego nahiz eskaletan, beheragoko mailetan, karrerako funtzionario gisa emandako zerbitzuak, urte bakoitzeko.

Balorazioa: 0,75 puntu.

Urte zatiak baloratu behar direnean, 0,06 puntu emanen da hilabeteke.

Egiaztagiria: titulu administratiboaren fotokopia konpultsatua karguaz jabetzeko nahiz uzteko eginbideekin batera, edo, behar izanez gero, Langileen Erregistroan izena emana izatearen agiriena.

1.1.4. Ondoko egoera hauetan, jarraian egindako urte bakoitzeko: lehiaketa nondik egiten duen, ikastetxe eta lanpostu hartan behin betiko destinoa duen funtzionarioa; edo atzerrian aldi baterako atxikitako lanpostuan dagoena; hezkuntzako ikuskapen lanetan, Funtzio Publikoaren Erreformatarako Neurriei buruzko Legeko hamabosgarren xedapen gehigarriaren arabera; edo hezkuntza administrazioaren menpeko diren beste lanpostu batzuetan edo ikerketa nahiz irakasle laguntzeko zerbitzuetan, betiere atxikipen horiek bere irakaskuntzako destinoa galtzea badakarkio.

Atxikipen kasuetan, atxikipena bukatu eta lehiaketa honetan parte hartu bitartean igarotako denbora 1.1.5 atalean baloratuko da (ikus bigarren oharra):

Lehenbiziko urtea eta bigarrena: 2 puntu urteko.

Hirugarren urtea: 3 puntu.

Laugarren urtea eta bosgarrena: 4 puntu urteko.

Seigarren urtea: 5 puntu.

Zazpigarren urtea eta zortzigarrena: 4 puntu urteko.

Bederatzigarren urtea: 3 puntu.

Hamargarren urtea eta hurrengoak: 2 puntu urteko.

Lanpostu hutsaren kidegoan karrerako funtzionario gisa emandako zerbitzuak soilik hartuko dira kontuan atal honetan.

Epaia edo errekurtsioaren ebazpena bete beharagatik, nahitaezko eszedentzia egoeratik etortzeagatik edo beraien lanpostua betiko eta espresuki desagertzeagatik behin betiko destinoa galdu dutelako lehiaketan esku hartzera behartuta dauden funtzionarioen kasuan, atal honek aipatzen dituen zerbitzuak neurtzerakoan, behin betikoz izandako azken lanpostua izanen da lehiaketako abiapuntuko lanpostu. Horri gaineratuko zaizkio, dagokionean, edozein lanpostutan geroago eta behin-behinekotasunez emandako zerbitzuak. Eskubidea dute, gainera, kendutako lanpostuaren aurreko azken lanpostuan behin betiko gisa eman zituzten zerbitzuak jatorrizko lanpostuko zerbitzualdiari gehitzeko. Jarraian izandako lanpostu kentzeak jasan dituzten irakasleen kasuan, jarraian kendu zaizkien lanpostuetan behin betiko gisa emandako zerbitzuak sartuko dira gehitze horretan.

Lanpostu kentze horren ondorioak jasanik beste behin betiko destinorik izan ez duen irakasleak, zehaztu diren ondorioetarako, ondoko

puntuazioa gehitzeko eskubidea izanen du: puntu bat, behin-behineko destinoarekin emandako urte bakoitzeko.

Aurretik aipatutako irizpideak diziplina-zehapen baten ondorioz bizilekua aldatu beharra dakarren destinetik parte hartzen duten funtzionarioei ere aplikatuko zaizkie.

Titular moduan zuten lanpostua kendu ondotik eskuratu duten behin betiko lehenengo destinoan zerbitzuak ematen ari diren funtzionarioek eskubidea izanen dute, lehiaketara aurkezten diren honetan, orain dauden ikastetxean emandakotzat har dakizkien lanpostua kendu zitzaizen ikastetxean emandako zerbitzu haiek, bai eta lanpostu kentze horren ondotik behin-behineko gisa emandakoak ere. Irizpide hau bera aplikatuko zaie, epaia bete behar izateagatik, errekurtsioaren ebazpenaren indarrez edo nahitaezko eszedentziatik etortzeagatik beren destinoa galdu ondotik, eskuratu duten lehenbiziko behin betiko destinoan zerbitzuak ematen ari direnei

1.1.5. Destinoaren zain dauden karrerako funtzionarioak eta borondatez lehenbiziko aldiz parte hartzen duten funtzionarioak, baldin 1.1.4 azpiatalari dagokion puntuazioaren ordez azpiatal honen puntuazioa aukeratzeko badute, baremo honen hirugarren oharrean zehazten den moduan (ikus hirugarren oharra).

Balorazioa: zerbitzuko urte bakoitzeko, puntu 1.

Egiaztagiria: titulu administratiboaren fotokopia konpultsatua karguaz jabetzeko nahiz uzteko eginbideekin batera, edo, behar izanez gero, Langileen Erregistroan izena emana izatearen agiriena.

1.2. Merezimendu akademikoak (gehienez ere 10 puntu).

1.2.1. Aparteko sariak:

–Zein espezialitatean parte hartzen den, hartako Goi Mailako azken kurtsoan lortutako sariagatik.

Balorazioa: 5 puntu.

Egiaztagiria: horren egiaztagiria.

–Zein kidegotatik parte hartzen den, hartan sartzeko baliatu espezialitatean, Goi Mailan lortutako ohorezko aipamenagatik.

Balorazioa: 3 puntu.

Egiaztagiria: horren egiaztagiria.

–Zein kidegotatik parte hartzen den, hartan sartzeko aurkeztutako tituluar dagokion espezialitatean, Erdiko Mailan lortutako ziklo-amaierako sariagatik.

Balorazioa: 5 puntu.

Egiaztagiria:

horren egiaztagiria.

–Zein kidegotatik parte hartzen den, hartan sartzeko aurkeztutako tituluar dagokion espezialitatean, Erdiko Mailaren amaieran lortutako ohorezko aipamenagatik.

Balorazioa: 3 puntu.

Egiaztagiria:

horren egiaztagiria.

–Zein kidegotatik parte hartzen den, hartan sartzeko aurkeztutako espezialitatea ez den batean eskuratutako sariagatik edo ohorezko aipamenagatik:

Balorazioa: puntu 1.

Egiaztagiria:

horren egiaztagiria.

1.2.2. Beste titulazio batzuk:

Baloratzekoan, Espainiar Estatuan balio ofiziala duten tituluak bakarrik izanen dira kontuan.

–Zein kidegotatik parte hartzen den, hartan sartzeko aurkeztutako titulua ez den hauetako bategatik: Kontserbatorioko edo Dantza, Kantu nahiz Arte Dramatikoko Goi Mailako Eskolako irakasle zein goi mailako irakasle titulua:

Balorazioa: Lehenbizikoagatik: 3 puntu.

Hurrengoak: puntu 1.

Egiaztagiria: kidegoan sartzeko erabilitako titularen fotokopia konpultsatua, eta merezimendu gisa aurkezten dituen guztiena, edo eskubideak ordaindu izana frogatzen duten ziurtagiriarena, 1988ko uztailaren 8ko Ministerioaren Aginduan (13ko "Estatuko Aldizkari Ofiziala") aurreikusi bezala, edo, hala denean, hura lortzeko ikasketak egin izana frogatzen duen ziurtagiriarena.

1.3. Merezimendu artistikoak:

–Autorea izanik estreinatutako konposizioak, argitalpen edo grabaketak legezko gordailuarekin, edo autonomia, estatu zein nazioarte mailako sariketa eta lehiaketetan jasotako sariak.

Balorazioa: gehienez 2,50 puntu.

Egiaztagiria: programak, kritikak, aleak eta, halakorik dagoenean, jasotako sarien ziurtagiriak.

–Zuzendari, bakarleri nahiz orkestrako bakarleri gisara edo ganbera taldeetan (bikoteak, hirukoteak, laukoteak...) azken bost urteotan emandako kontzertuengatik.

Balorazioa: gehienez 2,50 puntu.

Egiaztagiria: programak, kritikak, aleak eta, halakorik dagoenean, jasotako sarien ziurtagiriak.

1.4. Prestakuntza eta hobekuntza (gehienez ere 5 puntu).

1.4.1. Parte-hartzaileak eskuratu nahi duen lanpostuaren espezialitateko gai zientifiko eta didaktikoak hobetzeko xedea duten ikastaroak edo eskola antolamenduarekin edo hezkuntzari aplikatutako teknologia berriekin zerikusia dutenak gaindituak izatea. Ikastaro horien antolaitzaileak: hezkuntza arloan eskumena duten administrazioak, aipatu administrazio horiek onartu edo homologatutako irabazi asmorik gabeko erakundeak eta unibertsitateak. Puntuazioa: 0,10 puntu ikastaroko hamar orduko, ikastaroak gainditu eta egiaztatzen badira. Ondorio horietarako, ikastaro guztietako orduen batura eginen da eta ez da kontuan hartuko hamar orduetik beherako gerakina.

Ikastaroak kredituetan emanak badira, kreditu bakoitzak 10 orduren balioa izanen du.

Balorazioa: gehienez 4 puntu.

Egiaztagiria: ikastaroen ziurtagiria, iraupena agertuko duena, ordutan espresuki adierazia. Irabazi asmorik gabeko erakundeek antolatutako kasuan, ziurtagirian edo eranskin batean egiaztatu beharko dute onarpena edo homologazioa badutela.

1.4.2. Hezkuntza arloko prestakuntza eta hobekuntzako beste jardura batzuegatik, ikastaroak ematea barne.

Balorazioa: gehienez puntu bat.

Egiaztagiria:

horien ziurtagiriak.

1.4.3. Lehiatzailearen kidegoari dagokion espezialitate bakoitzeko, kidegoan sartzeko erabilitako hori izan ezik, eta betiere ekainaren 4ko 850/1993 Errege Dekretuaren III. tituluak arautzen duen espezialitate berriak eskuratzeko prozeduraren bidez eskuratua bada.

Balorazioa: puntu 1.

Egiaztagiria:

Espezialitate berria eskuratu izana egiaztatzen duen kredentzialaren fotokopia konpultsatua (ekainaren 4ko 850/1993 Errege Dekretuari jarraituz), edo hezkuntza administrazioako organoaren ziurtagiria, zeinek adieraziko baitu espezialitate berria ekainaren 4ko 850/1993 Errege Dekretuan ezarritako prozeduraren bitartez lortu zela.

II.–Beste merezimendu batzuk (gehienez ere 20 puntu).

2.1. Argitalpenak (gehienez 5 puntu).

2.1.1. Argitalpen didaktikoak, lehiaketako gai buruzkoak, edo zerikusi zuzena dutenak curriculumaren alderdi orokor edo zeharkakoekin edo eskolaren antolamenduarekin.

Balorazioa: gehienez 2,5 puntu.

Egiaztagiria:

Argitaratutako aleak.

Azaroaren 2ko 2984/1972 Dekretuaren arabera ISBN idaztera beharturik egonik horrelakorik ez dutenak ez dira baloratuko.

2.1.2. Lehiaketako gai buruzko argitalpen zientifikoak eta proiektu eta berriztapen teknikoak.

Balorazioa: gehienez 2,50 puntu.

Egiaztagiria: Argitaratutako aleak.

Azaroaren 2ko 2984/1972 Dekretuaren arabera ISBN idaztera beharturik egonik horrelakorik ez dutenak ez dira baloratuko.

2.1.1 eta 2.1.2 atalen arabera aurkeztutako merezimenduak atal horietako batean bakarrik puntuatuko dira.

2.1.3. Merezimendu artistikoak:

–Autonomia, estatu eta nazioarte mailako erakusketa edo lehiaketan jasotako sariak.

Balorazioa: gehienez 2,50 puntu.

Egiaztagiria: programak, kritikak, aleak eta, halakorik dagoenean, jasotako sarien ziurtagiriak.

Azpiatal honen arabera aurkeztutako merezimenduak ez dira kontuan hartuko baremo honetako 1.3 atalean baloratzeko aurkeztu badira.

2.2. Egindako lanen balorazioa (ikus laugarren oharra) (gehienez ere 10 puntu).

2.2.1. Lanpostu hutsa zein ikastetxetako den, halako ikastetxe publikoetan zuzendari lanetan emandako urte bakoitzeko.

Balorazioa: 3 puntu.

Urte zatiak baloratu behar direnean, 0,25 puntu emanen da hilabete.

Egiaztagiria: izendapenaren fotokopia konpultsatua, karguaz jabetzeko nahiz uzteko eginbideekin edo, bestela, ikasturte honetan karguan jarraitzen duela adierazten duen ziurtagiria.

2.2.2. Eskaintako lanpostu hutsak zein ikastetxetakoak diren, halako ikastetxe publikoetan zuzendariorde, idazkari edo ikasketaburu lanetan, eta horiekin parekatutakoetan, emandako urte bakoitzeko.

Balorazioa: 2 puntu.

Urte zatiak baloratu behar direnean, 0,16 puntu emanen da hilabete.

Egiaztagiria: izendapenaren fotokopia konpultsatua, karguaz jabetzeko nahiz uzteko eginbideekin edo, bestela, ikasturte honetan karguan jarraitzen duela adierazten duen ziurtagiria.

2.2.3. Lanpostu hutsa zein ikastetxetako den, halako ikastetxe publikoetan zuzendaritzako beste kargu batzuetan emandako urte bakoitzeko.

Balorazioa: puntu 1.

Urte zatiak baloratu behar direnean, 0,08 puntu emanen da hilabete.

Egiaztagiria: izendapenaren egiaztagirien fotokopia konpultsatua, karguan egiazki emandako denbora adierazten duena.

2.2.4. Koordinazio didaktikoko karguan egindako urte bakoitzeko.

Balorazioa: 0,50 puntu.

Urte zatiak baloratu behar direnean, 0,04 puntu emanen da hilabete.

Egiaztagiria: izendapenaren egiaztagirien fotokopia konpultsatua, karguan egiazki emandako denbora adierazten duena.

2.2.5. Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza administrazioan Unitate Teknikoko buru, bulegoburu, atalburu, Zerbitzuko zuzendari edo horiekin parekatutako lanpostuetan emandako urte bakoitzeko:

Balorazioa: 1,50 puntu.

Egiaztagiria: izendapena edo jabetza hartzea eta uztea azaltzen duen egiaztagirien fotokopia konpultsatua, edo bestela, ikasturte honetan karguan jarraitzen duela adierazten duenarena.

Zein kidegotatik parte hartzen duen, hari esleitutako destinoko osagarriaren maila bereko edo goragoko lanpostuetan beste hezkuntza administrazio batzuetan egindako zerbitzu urte bakoitzeko.

Balorazioa: 1,50 puntu.

Egiaztagiria: izendapenaren fotokopia konpultsatua, karguaz jabetzeko nahiz uzteko eginbidea agerian duena edo, bestela, ikasturte honetan karguan jarraitzen duela adierazten duen ziurtagiria.

Urte zatiak baloratu behar direnean, 0,12 puntu emanen da hilabete.

Oharrak:

Lehenbizikoa.–Antzinasunaren balorazioa.

1. 1.1.1., 1.1.4. eta 1.1.5. atalei dagokienez, urte gisa baloratuko dira ikasturtea hasten denetik bukatu arte ematen diren egiazko zerbitzuak.

2. 1.1.2 eta 1.1.3 ataletan aipatu zerbitzuak ez dira kontuan hartuko batera eman direnean, edo 1.1.1, 1.1.4 edo 1.1.5 atalekoekin batera eman direnean.

3. 1.2.1. eta 1.2.4. atalen ondorioetarako, kontatu eginen dira zerbitzu berezien egoeran emandako zerbitzuak, halakotzat hartuak direnean abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen 29.2 artikuluan, bai eta abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen aurreko xedapenen arabera antzeko izaera duten egoerak ere. Halaber, ondorio horietarako zenbatuko dira eszedentzia bereziko zerbitzuak, abuztuaren 30eko 251/1993 Lege-gintzako Foru Dekretuaren 27. artikuluari jarraituz emanak (foru dekretu hori maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legeak aldatu zuen).

Bigarrena.–Zer ikastetxetatik abiatuta hartu nahi den parte lehiaketan.

Baremoko 1.1.4. atalaren ondorioetarako, lehiaketan parte hartzeko eskabidea zein ikastetxetatik egiten den jakiteko, izangaiaren behin betiko destinoarena hartuko da, edo zer ikastetxeri dagoen atxikia, hura, baldin eta egoera horren ondorioz irakasle destinoa galtzen bada. Atal honengatik, bakarrik kontatuko dira karrerako funtzionario bezala lanpostu hutsaren kidegoan emandako zerbitzuak. Aurreko lerroaldean xedatutakoan ez dira sartzen behin betiko destinoa galdu dutelako lehiaketan parte hartzea behartutako funtzionarioak, bai epaia bete beharregatik edo errekurtsioa ebaztearen ondorioz, bai nahitaezko eszedentziatik etortzeagatik edo haien lanpostua kendu delako deialdian ezarritakoaren arabera. Funtzionario horiei baremoko 1.1.4. atalean kasu horietarako xedatutako aplikatuko zaie.

Hirugarrena.–Lehenbiziko aldiz eta beren borondatez parte hartzen duten karrerako funtzionarioak.

Lehenbiziko aldiz beren borondatez parte hartzen duten karrerako funtzionarioek baremo honetako 1.1.4 ataleko puntuazioa edo

1.1.5ekoa hautatzen ahalko dute, eta hala adierazi parte hartzeko eskabidean.

Baldin eta 1.1.5. ataleko puntuazioa hautatzen badute, karrerako funtzionario gisa destinoaren zain emandako zerbitzu urteez gainera, behin betiko destinoarekin zein ikastetxetatik hartzen duten parte, hartan emandakoak ere kontatuko zaizkie.

Parte hartzeko eskabidean bereizi duten aukera adierazten ez badute, baremo honetako 1.1.4 ataleko puntuazioa hautatu dutela ulertuko da.

Laugarrena.–Egindako lanaren balorazioa.

1. 2.2.1., 2.2.2., 2.2.3., 2.2.4. eta 2.2.5. atalengatik, karrerako funtzionario gisa izandako zuzendaritza karguak baloratuko dira bakarrik.

2. Merezimenduen baremoko 2.2.1, 2.2.2 eta 2.2.3 ataletan aurreikusitako ondorioetarako, honako hauek hartuko dira lanpostu hutsen ikastetxe publikotzat:

–Goi Mailako Musika Kontserbatorioak.

–Musika edo Dantzako Kontserbatorio profesionalak.

–Oinarrizko Musika Kontserbatorioak.

–Arte Dramatikoko Goi Mailako Eskolak.

–Kantuko Goi Mailako Eskola.

3. Merezimenduen baremoko 2.2.2. atalean ezarri ondorioetarako, alboko ikasketaburutzak kargu parekatutzat hartuko da.

4. Merezimenduen baremoko 2.2.3 atalean, idazkariordearen kargua hartuko da kontuan.

5. Merezimenduen baremoko 2.2.4 atalean ezarri diren ondorioetarako, kargu parekatutzat honako hauek hartuko dira gutxienez:

–Mintegiko burua.

–Departamentu didaktikoko burua.

6. Kargu batean baino gehiagotan batera jardunez gero, ezin izanen da puntuazioa pilatu.

Bosgarrena.–Urteko zati den hilabete bakoitzaren kontaketa eginen da, bakarrik, baremoan berariaz ezarritako ataletan. Gainerako kasuetan ez da urte zatiko puntuaziorik emanen.

VII. ERANSKINA

Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoa

KODEA	ESPEZIALITATEA
001	FILOSOFIA
002	GREKOA
003	LATINA
004	GAZTELANIA ETA LITERATURA
005	GEOGRAFIA ETA HISTORIA
006	MATEMATIKA
007	FISIKA ETA KIMIKA
008	BIOLOGIA ETA GEOLOGIA
009	MARRAZKETA
010	FRANTSESA
011	INGELESA
012	ALEMANA
016	MUSIKA
017	GORPUTZ HEZKUNTZA
018	PSIKOLOGIA ETA PEDAGOGIA
019	TEKNOLOGIA
057	EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA (NAFARROA)
058	ESPARRU SOZIO-LINGUISTIKOA
059	ESPARRU ZIENTIFIKO-TEKNIKOA
061	EKONOMIA
101	ENPRESEN ADMINISTRAZIOA
102	INDUSTRIAKO ANALISIA ETA KIMIKA
103	IRUDI PERTSONALEKO AHOLKULARITZA ETA PROZESUAK
104	ERAIKUNTZA ETA OBRA ZIBILAK
105	LANERAKO PRESTAKUNTZA ETA ORIENTAZIOA
106	OSTALARITZA ETA TURISMOA
107	INFORMATIKA
108	GIZARTEAN ETA KOMUNITATEAN ESKU HARTZEA
110	MERKATARITZAKO ANTOLAKETA ETA KUDEAKETA
111	IBILGAILUAREN MANTENTZE-LANAREN ANTOLAKETA ETA PROZESUAK
112	FABRIKAZIO MEKANIKOAREN ANTOLAKETA ETA PROIEKTUAK
113	ENERGIA SISTEMEN ANTOLAKETA ETA PROIEKTUAK
115	NEKAZARITZAKO EKOIZPENEN PROZESUAK
116	ELIKAGAIEN INDUSTRIAKO PROZESUAK
117	PROZESU DIAGNOSTIKO KLINIKOAK ETA PROD. ORTOPROTESIKOAK
118	OSASUN PROZESUAK
120	EHUNGINTZA, JANTZIGINTZA ETA LARRUGINTZAKO PROZESUAK ETA PRODUKTUAK
123	ZURGINTZA ETA ALTZARIGINTZAKO PROZESUAK ETA PRODUKTUAK
124	SISTEMA ELEKTRONIKOAK
125	SISTEMA ELEKTROTEKNIKO ETA AUTOMATIKOAK
803	KULTURA KLASIKOA
905	NATUR ZIENTZIAK

VIII. ERANSKINA

Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoa

KODEA	ESPEZIALITATEA
026	ESPARRU PRAKTIKOA
201	SUKALDARITZA ETA PASTELGINTZA
202	EKIPO ELEKTRONIKOAK
203	ESTETIKA
204	AROTZ-LANAK ETA ALTZARIAK EGIN ETA INSTALATZEA
205	BERO ETA FLUIDO EKIPOEN INSTALAZIOA ETA MANTENTZE-LANAK
206	INSTALAZIO ELEKTROTEKNIKOAK
208	LABORATEGIA
209	IBILGAILUEN MANTENTZE-LANAK
211	MAKINEN MEKANIZAZIOA ETA MANTENTZE-LANAK
212	ERAIKUNTZA PROIEKTUEN BULEGOA
213	FABRIKAZIO MEKANIKOKO PROIEKTUEN BULEGOA
214	ELIKAGAIEN ELABORAZIOKO LAN ETA EKIPOAK
215	PROZESUKO LANAK
216	NEKAZARITZAKO EKOIZPENEN LANAK ETA EKIPOAK
217	PATROIGINTZA ETA JANTZIGINTZA
218	ILE-APAINKETA
219	DIAGNOSI KLINIKO ETA ORTOPROTESIKOAREN PROZEDURAK
220	OSASUN ETA LAGUNTZA PROZEDURAK
221	MERKATARITZA PROZESUAK
222	ADMINISTRAZIO KUDEAKETAKO PROZESUAK
225	KOMUNITATEARENTZAKO ZERBITZUAK
226	JATETXEKO ZERBITZUAK
227	INFORMATIKAKO SISTEMA ETA APLIKAZIOAK
228	SOLDADURA

IX. ERANSKINA

Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoa

KODEA	ESPEZIALITATEA
001	ALEMANA
007	EUSKARA
008	FRANTSESA
011	INGELESA
012	ITALIERA

X. ERANSKINA

Musikako eta Arte Eszenikoetako Katedradunen Kidegoa

KODEA	ESPEZIALITATEA
001	AKORDEOIA
005	BALLET KLASIKOA
006	KANTUA
010	KONPOSIZIOA ETA INSTRUMENTAZIOA
017	DANTZA ESPAINIARRA
032	ZEHARKAKO FLAUTA
035	GITARRA
059	PIANOA
061	BAT-BATEKOTASUNA, MUSIKA-TRESNEN TONUALDAKETA ETA AKONPAINAMENDUA
066	SAXOFOIA
068	SOLFEOA ETA MUSIKAREN TEORIA
075	TRONPETA
078	BIOLINA
079	BIOLONTXELOA
080	TXISTUA

XI. ERANSKINA

Musikako eta Arte Eszenikoetako Irakasleen Kidegoa

KODEA	ESPEZIALITATEA
401	AKORDEOIA
402	HARPA
404	KLARINETEA
405	KLABEA
406	KONTRABAXUA
408	FAGOTA
410	ZEHARKAKO FLAUTA
411	MOKO-FLAUTA
412	KONPOSIZIOKO OINARRIAK
414	GITARRA
416	MUSIKAREN HISTORIA
419	OBOEA
420	ORGANOA
421	ORKESTRA
422	PERKUSIOA
423	PIANOA
424	SAXOFOIA
426	TRONBOIA
427	TRONPA
428	TRONPETA

KODEA	ESPEZIALITATEA
429	TUBA
431	BIOLA
433	BIOLINA
434	BIOLONTXELOA
436	DANTZA KLASIKOA
460	MUSIKA HIZKUNTZA

XII. ERANSKINA

Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakasleen Kidegoa

KODEA	ESPEZIALITATEA
507	MARRAZKETA ARTISTIKOA ETA KOLOREA
508	MARRAZKETA TEKNIKOA
509	BARNEALDEEN DISEINUA
511	PRODUKTUAREN DISEINUA
512	DISEINU GRAFIKOA
516	ARTEAREN HISTORIA
520	MATERIALAK ETA TEKNOLOGIA: DISEINUA
522	INFORMATIKAKO BALIABIDEAK
525	BOLUMENA

XIII. ERANSKINA

Arte Plastikoko eta Diseinuko Tailer Maisuen Kidegoa

KODEA	ESPEZIALITATEA
602	BRODATUAK ETA ENKAJEAK
605	EBANISTERIA ARTISTIKOA
608	ARGAZKILARITZA ETA BERREGINTZAKO PROZESUAK
612	HARRI ETA ZURAREN LANKETA
613	ZERAMIKAKO TEKNIKAK
614	GRABATU ETA ESTANPAZIOKO TEKNIKAK
617	PATROIAK EGITEKO ETA JANTZIGINTZARAKO TEKNIKAK

F0717527